

URDAIBAI

2020
zenb 21
.....

© MAGAZINE



#danonartein

LORTU BEHAR DOGU
INOR ATZEAN ITXI BARIK

| ELKARRIZKETA: UNAI REMENTERIA *BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA*

| URDAIBAI ETA AGENDA 2030, GAURKOARI ETA ETORKIZUNARI BEGIRA

| ZELAN ATERAKO GARA HONETATIK?

COVID 19

JOKATU ARDURAZ ACTÚA RESPONSABLEMENTE



MASKARA ERABILI USA MASCARILLA

Nahitaezkoa garraio publikoan.
Obligatoria en transporte público.




ZAINDU HIGIENEA CUIDA LA HIGIENE

Garbitu eskuak eta
saiatu ezer ez ukitzen.
Desinfectate las manos
y evita el contacto.



ZAINDU TARTEA VIGILA LA DISTANCIA

Utzi ahalik eta distantzia handiena besteeikiko.
Mantén la máxima separación posible.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETORKIZUNA PERSPEKTIBAKAZ

Perspektiba begiratzeko modu bat da, gauzak beren espazio eta denbora-testuinguruan eta beste elementu eta egoera batzuek lotuta ikusteko aukera emoten deuskuna. Distantzia fisikoa eta mentala hartzea da perspektiba, gauzak beren dimentsioan hausnartzeko eta baloratzeko. Ikuspegia iraganera begiratzeko eta etorkizuna aurreikusteko modu baliagarria da. Irtenbideak bilatzeagaz eta jomugak planteatzeagaz lotzen badogu, arrakastaren bermea da. Perspektiba begiratzeko dogun posizioak baldintzatzen dau. Urdaibai Magazine aldizkariaren ale hone-tan, COVID-19ren pandemiak utzi deuskun errealitateari buruzkoa, eragile, erakunde publiko eta pribatu askok labur azaltzen deuskue eskualdearen etorkizunari buruz daukeen ikuspegia.

Osasun-krisiaren lehen uneak dramatikoak izan ziran, eta gertaeren garapen bizkorak berehala erreakzionatu be-harra ekarri eban. Elkartasuna agerian geratu zan bolun-tariotzan, enpresen eta zentrozen jarduera birmoldatzean, eskas eta premiazkoak ziran baliabideak emoteko, eta es-kualdearen espiritua #danonartean bezalako ekimenetan islatu zan, azalean jasotzen doguna.

Bizi izandakoaren eta belaunaldi barrientzat gura doguna-ren ikuspegi bikoitzagaz, eragileek beren ekintza-proiektu bereziak, lankidetzaren planak eta garapen-ikuspegia aipa-tzen dabez, etorkizun komun eta partekatu bat bidera-tzeko eta eraikitzeko, identitatearen, barrikuntzaren eta digitalizazioaren ikuspegiaren bidez. *Bizkaia Egiten*, Bizkai-ko Lurralde Historikoaren etorkizunerako asmo handiko proiektuen bidez, testuinguru aberasgarria da, eta siner-giak sortzen dauz Euskadin eta Europagaz.

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com

tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo
Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com

www.nuevaeuropa.eus

PUBLIKAZIOA DATA: 2020.08.13

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso da.



12 Herri bakoitzak balioa batzen dau

25 Lankidetzaren publiko-pribaturako lotura

32 Sinergia emankorrak lortzeko

37 Profesionaltasuna egoera zailean

"Aldundiak abiarazitako proiektuak dira gure egoerarako txertorik onenak"

Unai Rementeria

Bizkaiko Ahalduen Nagusia

©BFA/DFB

Unai Rementeriak, Bizkaiko Ahalduen Nagusiak lurralde historikoaren eta Busturialdearen gaurkotasunari eta etorkizunari buruzko galderei erantzuten deute.

**Zer neurritan aldatu behar izan dozu Bizkaiko Foru Aldundia-
ren legealdiko estrategia?**

Aldundiaren estrategia eta proiektuak ez dira aldatzen. Pandemiak eta bizi dogun egoerak zerbait erakutsi badabe, Bizkaiko Foru Aldundiak hasitako proiektuak geure egoera sozial eta ekonomikorako txertorik onenak direla da.

Europagaz lerrokatuta egon behar dogu, euren beharrak gureak baitira: trantsizio bat egitea energia, digitalizazioa, ekintzailatza bultzatzea eta talentua erakartzea moduko arloetan, proiektu soziosanitarioak eta inbertsio produktiboak dira Europak beharrezko berreskuratze eta eraldatze horretan lehentasunezko zat jotzen dabezen proiektuak. Azken helburua da Bizkaia hobea uztea hurrengo belaunaldientzat, inor atzean itxi barik.

Beste kontu bat da ekintza batzuk, proiektu batzuk birprogramatu edo atzeratu egin behar izan direla osasun-krisiaren eta bizi dogun diru-bilketaren jaitsiera handiaren ondorioz.

Hasiera batean, zeintzuk izan dira arlorik kaltetuenak?

Ezin dot arloez berba egin, programez baizik. Apirilean "Bizkaia Aurrera" txoke-plana bultzatu gendun, 95,5 milioi euroko injekzio-aurreikuspenagaz eta 672 milioiko inpaktu ekonomikoagaz, pandemia horrek eragin handiena izan eban sektoreei zuzenduta:

-Langileak ardurapean izanik, negozioa itxi behar izan eben edo eragin ekonomiko handia izan eben autonomo eta ETEei zuzenduta.

Bizkaiko eremu guztien beharrezko digitalizazioa bultzatzeari zuzenduta.

-Enpresek beren jarduera ekonomikoari eutsi ahal izateari zuzenduta, zerga-luzapenetatik datozen baliabideak enpresara bertara edo enpleguari eustera bideratuz.

-Talka-plan hori baliabidez hornitu ahal izateko, beste programa batzuk atzeratu ziran, batez be konfinamenduan zehar jarduera gelditzearen ondorioz garatu ezin izan direnak edo aurten gauzatu ezin izango direnak, hala nola obrak, gauzatzen ez diren ekintzen diru-laguntzak...

Errealitate barriak, enpresen krisiak, 2021ean larriagotu egingo dala dirudiena, eta zerga-bilketaren beherakadak, dagoeneko errealitate bat dana, Bizkairako proiektuak itxiko al dabez bidean?

Barriro dinot, estrategikotzat jotzen doguzen proiektuak, gure ekonomiaren beharrezko eraldaketan laguntzen dabena, errealtate barrirako trantsizio energetikoa, digitala, ingurumeneko eta sozialari laguntzen dabena, ez dira aldatuko.

Are gehiago, beharrezko foroetara joko dogu laguntzak eta funtsak biltzeko eta osorik garatu ahal izateko, hala nola Europako Funtsak *Green Deal* eta *Next generation UE* programen barruan.

2021eko aurrekontu-egoera zehaztu aurretik, urte horretarako izango dogun defizit eta zorpetze-ahalmena zehaztu behar dogu.

Oso argi dekot horrelako salbuespenezko egoeretan Administrazio batek zorpetu egin behar dala. Oso egoera ekonomiko ona dogu Aldundian.

Orain, gizarteak Administrazioaren parte-hartze garrantzitsua eskatzen dau, ekonomia sustatzen laguntzeko, kalitatezko enplegua mantendu eta sortzeko eta zerbitzu publiko guztiak mantentzeko.

Bizi izan doguzen une latz hauetan Ahaldu Nagusia izateak oso erabaki zailak hartzea dakar. Zein izan da zailena? Adinekoen egoitzen kudeaketa, koronabirusaren aurrean ahulenak diren biztanleak?

Martxoa, apirila eta maiatza oso hilabete biziak izan ziran, tentsio handikoak pertsonen osasunagaz zerikusia eben hainbat kontutan.

Aldundiko langile guztien osasuna bermatzea (ia 4.000 pertsona), funtsezko zerbitzu guztiak errendimendu osoan mantentzea, eta Aldundiaren egoitza-sare, egunezko zentro eta tutoretza-zentro guztien egoera berezia izan zan, ahalegin handiena egin eben guneak izan ziran, zalantza barik.

Pertsonen osasuna zan garrantzitsuena. Mendekotasuna daukeen adinekoen osasuna, bai eta, batez be, beren etxeetan bakarrik bizi direnena be.

Horregatik martxoaren 14an *Bizkaia Gara* sarea bultzatu gendun. Boluntarioen sare bat, gizartearen zerbitzura, premia-egoeran dagoenen zerbitzura, elikagaiak, sendagaiak emateko edo, beste barik, eurekaz berba egiteko euren etxeetan.

Eta hemen bai, eskerrik beroenak emon gura deusez beren eginkizunetatik, bai osasun-langileei, bai egoitzetako edo eguneko zentroetako langile soziosanitarioei, larrialdetako langileei, suhiltzaileei, Basalani, *Bizkaia Garako* boluntarioei eta Bizkaia honen bertsiorik onena jendearen zerbitzura jarri eben beste pertsona askori.

Eguno ikuspegitik, zeintzuk izango dira legegintzaldiko proiektu estrategikoak? Eta zeintzuk izan daitezke eragingarriak Busturialdean?

Garrantzitsua da azpimarratzea, gure lurraldearen tamainagatik (Bizkaia), eskualdeetan egiten dan edozein jar-

duerak nabarmen eragiten deusez guztiei.

Lurraldea, Euskadi eta Europa bezala, eraldaketa-prozesu batean murgilduta dago bere ikuspegi sozial eta ekonomikotik.

Trantsizio energetikoak eta digitalak, klima-aldaketaren konponbideak, ekonomia zirkularraren garrantzia eta osasun eta soziosanitario-estaldurako zerbitzu publikoen garrantzia... Europaren eraldaketa horren erakusgarri dira. Gu ez gara hortik kanpo geratzen. Aldundiak *Bizkaia Egiten* gobernu-programan islatutako proiektu guztiak geure bizi-kalitatea mantentzeko eta hobetzeko behar dan trantsizioan laguntzearen ondorio dira.

EIC (*Energy Intelligence Center*) bezalako proiektuak, gure herrialdeko eta Europako energia-enpresen zerbitzura egongo dan barrikuntza-zentroa, errealtatea izango dana eta Euskadiri mesede egingo deusez eta, horregaz ba-

*"Eskerrik beroenak
emon gura deusez
beren eginkizunetatik
Bizkaiaren bertsiorik onena
jenderaren zerbitzura jarri
daben pertsona guztiei"*

tera, geure Busturialdeko eskualdeari be bai. NIC (*Nagusi Intelligence Center*) proiektua, barrikuntza-zentro gisa, enpresak eta talentua sortzeko, eta, horrela, produktuak eta zerbitzuak sortzeko biztanleria-talde oso garrantzitsu batentzat: 65 urtetik gorakoentzat. Proiektu horretan lan egiten dau Bizkaiak, Suediak, Finlandiak edo Suitzako gobernu moduan.

Beraz, Busturialdeko adinekoak proiektu horien onuradun izan daitezke.

Bizkaia Dorreak Busturialdeko eta Bizkaiko biztanle gazteenei be egingo deusez mesede. Dorre hau erakargarria izango da sektore teknologiko edo disruptiboetako (startups) enpresa txiki guztientzat. Talentua, pertsona prestatuak, gazteak herrialdeko enpresen zerbitzura eta mundu guztiagaz konektatuta.

Beharrezkoa dan digitalizazioa, txoko guztietara, etxe guztietara, enpresetara, langileengana irits daiten, lurraldearen beharizana da. Programa horrek, Internetarako konexioaz gain, prestakuntza eta aplikazioa be eskatzen dauz. Horretarako, Eskola 42, prestakuntza eta enpresen

"Arreta soziosanitarioko bulegoak eskualdeka zabaltzea datozen hilabete eta urteetan garatuko dan ekintza da"

eta autonomoen zerbitzurako hobari fiskalen neurriak bezalako ekimenak estrategia digitalaren bultzada argia dira. Martxan dagoen proiektu gehiagoz berba egiten jarrai neinke, baina zerbitzu soziosanitarioetan be zentratu gura nuke. Arreta soziosanitarioko bulegoak eskualdeka zabaltzea datozen hilabete eta urteetan garatuko dan ekin tza da. Gizarte-zerbitzuen etorkizun hurbila hurbilagoa da, zalantza barik, pertsonak bizi gura daben lekuan egotea eta beharrezko zerbitzuak jasotzen aritzea.

Etsetic proiektua eredu arrakastatsua da, eta orain eskual de guztietan inplementatu behar dogu.

Busturialdeko herritarren eta belaunaldi barrien prestakuntza -maila altua da, baina eskualdeko enplegu-eredua bertoko ta lentuari eustetik urrun dago. Zeure ustez, zeintzuk dira egoera hori aldatzeko gakoak?

Egia da askoz hobe dala pertsona guztientzat lanera joan ahal izatea eta beren bizi-zikloa garatzea etsetik oso urrun joan behar izan barik. Horrela da. Eta halan da garraiobi deak erabiltzeko premia txikiagoa dakarrelako eta bizi-ka litate handiagoa emoten dauelako.

Baina esan bezala lurralde txiki batean bizi gara, bertan garraio publikoaren kapilaritatea oso garrantzitsua da. Eskualdeak daukozan tren eta autobus-zerbitzuak oso garrantzitsuak dira, baina egia da beti hobetu behar dala, batez be, zerbitzuaren eraginkortasunari eta koordinazio handiagoari dagokienez.

Edozein ekintza eta ezarpen barri (Busturialdean, Zornotza-Durango, Mungialdean edo baita Bizkaiko metropolian) 40 minutura dago ga rraio publikoan.

Hala ere, Busturialdeak trakzio-enpresa garrantzitsu gutxi dauko.

Lehenik eta behin, dagozenei ager toki barrietara igarotzen lagundu behar jake, sortzen daben enplega garritasun handia galdu barik, jakinik horren mende dagozela eskualdeko pertsona eta familia asko.

Bestalde, digitalizazioak eta ekono mia zirkular barriek aukera emoten

deutse gurea moduko eskualdeei. Busturialdean, inguru mena eta giza populazioa elkarregaz bizi dira, eta Euska diko Biosferaren Erreserba bakarra da.

Elkarbizitza horri esker, uraren aire-kalitateak eta paisaia erakargarriak izan daitezke, bizitokia eta jarduera uztar tzeko. Digitala eta zirkularra uztartuz gero, jarduera barriak sortuko dira, baita enpresa barriak be Busturialdean.

Horren erakusgarri da zenbait ekimen abian direla, mate rialak berrerabiliz eta teknologia barriekaz konbinatuz.

Aspalditik, udalez gaindiko erakundeak eskualde honetaz oroitzen ez direlaren sentsazioa ezarri da. Egia da, enpresa-sa rea ez dala lurralde horretan berregin, eta lehen sektoreak ez dauela belaunaldi-erleborik aurkitu. Bestalde, trantsizio energetikoa, barrikuntza eta digitalizazioa garapen ekono mi ko barriaren egituratzaile gisa planteatzen diren kontzeptuak dira. Zelan eramaten doguz Busturialdeko errealtatera?, Zure ustez, nora bideratu behar da geure eskualdeko garapen ekono mikoa?

Azken hiru urteotan, Ahaldun Nagusi gisa lurralde osoan egiten ari nazen kontuak emoteko saioetan, 2.000 pertso na baino gehiagogaz elkartu naz.

Saioak eskualdeka egiten dira eta nire eskualdean be izan naz.

Baina eskualde guztietan beti dago nork esaten dauen erakundeek ahaztua daukeela. Baieztapen hori ez da ba rria inon.

Hori esanda, azpimarratu gura dot Bizkaian oreka handia dagoela eskualdeen artean. Biztanleriaren eta eskualdeen arteko desbardintasun-marjinak txikiak dira, eta Europako iparraldeko eskualde eredugarrien oso antzekoak dira.

Baina errealtate hori egunero landu behar da, eta zerbitzu publikoek eta horietara bideratutako aurrekontuko diruak laguntzen dabe horretarako.

Busturialdea ez da uharte bat Bizkaian eta Euskadin. Pan demiak bardin eragiten deutso, krisiek bardin eragiten deutse eta onurek edo hobekuntzek be isla positiboa daukee eskualde honetan.

Esan bezala, Europak bizi dauen trantsizio-egoerak Busturialdean be badauko isla. Nekazaritzako, abeltzaintzako edo arrantzako enpresetan izango dau eragina, eta merkataritzan izango dau eragina. Digitalizazioa ezin da oztopo izan, aliatua izan behar dau.

Horretan ari gara lanean. Gure lehen sektorearen, sektore eral datzailearen, geure tokiko mer kataritzaren eta geure ETEaren zerbitzura dagoen plataforma eta prestakuntza egotea.

Geure indarra bertokotasuna da. Eta gutako bakoitzetik abiatu

"Digitala eta
zirkularra
uztartuz gero,
jarduera barriak
sortuko dira, baita
enpresa barriak
be Busturialdean"



behar dau. Erosketa bakoitza, denda batean, ekoizle batean edo bertoko denda batean eskatzen dogun zerbitzu bakoitza eskualderako eta lurralde historikorako aberastasun handiagoa dala kontzientziatzen badakigu... hori abiapuntu ona da ekonomia zirkularrean lan egiteko.

Bermeo eta Gernika-Lumo eskualde-buruak dira, Busturialdeko bizilagun eta Ahaldun Nagusia lez, zure ustez, zeintzuk dira euren indarguneak?

Eta zure ustez nora bideratu daikenez euren garapena?

Bermeo eta Gernika-Lumo eskualdearen berezko nortasunaren ordezkari dira, eskualde-buru bezala, baina biak oso desbardinak dira izaerari dagokionez, baita alderdi sozioekonomikoari dagokionez be.

Bermeok azpiegitura bakarra dauko eskualdean eta baita Euskadin be. Bere portua. Portu horrek hiru erabilera posible hartzen dauz: arrantza-erabilera, merkataritza-erabilera eta aisialdiko erabilera.

Aukera hori aprobetxatzen jakin behar dogu, Bermeoko portuak eskaintzen dabezen balizko azterketa eta aukeren bilaketari ahalik eta etekin handiena ateratzen jakin behar dogu.

Kontserbari lotutako nekazaritzako elikagaien industriak digitalizaziora eta gertuko merkatuetara egokitzeak aukera be badauko.

Gernika-Lumok ez dauko porturik, baina badauko eragin-eremu garrantzitsu bat, eskualdearen bihotzean baitago. Busturialdeko biztanle guztien bultzatzaile izan daiteke eta izan behar dau, eta hori historikoki aprobetxatzen

jakin dauen aukera bat da, eta gaur egun, mundu digital eta ekonomia zirkularreko mundu honetan be hori egiten jakin behar dau.

Gainera, Gernika-Lumo Euskadi osoko kultura eta ondare-erreferentzia da zalantza barik. Foruen bihotza bertan kokatuta egotea eta Euskal Herria Museoa zein Bakearen Museoa moduko museoak mantentzen eta hobetzen jakin behar dogun erakargarriak dira.

" Biztanleriaren eta eskualdeen arteko desbardintasun-marjinak txikiak dira, eta Europako iparraldeko eskualde eredugarrien oso antzekoak"

Gero eta gehiago lotzen da Busturialdea-Urdaibai kalitatezko turismoagaz, naturalagaz, kulturalagaz...eta egia da baldintza guztiak betetzen direla eta garapen kulturala sektore ekonomiko erabakigarria izan daitekeela, baina epea eta inbertsio publikoak be behar dauz. Aukera hori dago Bizkaiko Foru Aldundiaren planetan, ondare historikoari, Omarko Basoari, Guggenheim Urdaibai edota Gaztelugatxeko San Juaneri dagokionez?

Bisitatzen dauen ingurunea errespetatzen dauen eta herriaren nortasuna eta izaera kulturalera irekita dagoen bisitariaren hartzaile izan behar dogu beti. Bisita hori eskatzen dogu, gura dogun kalitateagaz eta errespetuagaz. Eta Aldundiak horretarako lan egiten dau.

Gaztelugatxeko San Juanen Bermeoko Udalagaz eta Urremendi Landa Garapen Elkartegaz elkarlanean ezarri doguzen ordenamendu eta mugaketa-planak, segurtasun neurriekaz batera, be helburu horren ondorioak dira.

Oma be geure eskualdeko "ikono" bat da. Baina bizitza zehatza daukon ikono bat. Geure asmoa obra hori edo horrek esan gura dauena hurbileko leku batean eta Busturialdean mantentzea da.

Guggenheim Museoaren beraren plan estrategikoaren barruan sortu zan ideia bat izan zan, 2008-2009 urtean. Uste dot plan estrategikoari jarraipena emon behar deustogula eta gaiari buruzko hausnarketa lasaia egin behar dogula.

Iritzia emon beharko banu, uste dot planteamendua birformulatu behar dala, baina eskualdean ezaugarri jakin batzuk daukozen museo bat izatea pizgarria izango litzake jarduera ekonomikoa sortzeko eta Busturialdearen zerbitzura kultura-ondare handiagoa izateko.

Zein neurritan gidatuko dau *Energy Intelligence Centerrek (EIC)* Bizkaiko etorkizun industrial? Izan al dau eraginik Busturialdeko garapen ekonomikorako?

Euskadiko eta Europako enpresa traktoreak eta hornitzaileak Bizkaiko barrikuntza-zentro batean kokatzen diran jarduera orok ondorio positiboak izango dauz lurraldeko eskualde guztietan, Busturialdean barne.

Garrantzitsua da azpimarratzea Bizkaiko Ogasunak energiari lotutako enpresen 2600 milioi euro inguru biltzen dauzela; baliabide horiek, gero, euskal administrazioek emoten dabezen zerbitzu guztiei eusteko balio dabe. Hezkuntza, osasuna, segurtasuna, garraio publikoa, jardueraren eta enpleguaren sustapena, ingurumena ber-

matzea eta baliabide horiekaz ordaintzen diran hainbat eta hainbat zerbitzu.

*EIC*ren helburua Euskadiko ekonomia-sare osoari energia barritagarrien forma barrietara (eolikoa, hidrogenoa, etab.) igarotzen laguntzea da, Bizkaia etorkizunean be energiaren sektore indartsua izan daian eta beharrezko enplegua sor daian.

*"Bisitatzen dauen
ingurunea
errespetatzen dauan
eta herriaren
nortasuna eta izaera
kulturalera irekita
dagoen bisitariaren
hartzaile izan
behar dogu"*

Gero eta gehiago aipatzen dira bi kudeaketa-eredu integratzaile, lankidetzako publiko-pribatua eta erakundeen arteko lankidetzak. Lehena, errealista al da, batez be sektore pribatuaren egungo krisi-egoerari? eta, zertan hauteman daikegu Busturialdean udalen, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren erakundeen arteko lankidetzak eskualdeko tokiko ekonomia sustatzeko?

Gurea bezalako herrialde txikiek be ondo egiten dabenengandik ikasi behar dabe. Konparazioak garrantzitsuak dira, baina beti alderatu behar gara onekaz, gu baino hobekien direnekaz, non estutu behar

dogun jakiteko eta ez lasaitzeko.

Bada, herrialde horietan, batez be European, lankidetzako publiko-pribatua eta erakundeen arteko lankidetzak ona jarduera arrakastatsu baten gakoak dira, hain zuzen be. Eta bi lankidetzak hauek funtsezkoak dira gure lurraldean be. Europar Batasunak berak eraldaketarako eta berreskurapenerako funtsak antolatzen dauzenean, proiektuek beharrezko lankidetzak publiko-pribatua izatea eskatzen dabe.

Gure proiektu guzti-guztiak (aurrez zehaztutakoak) elkarlan baten adibide dira, hor baitago proiektuak arrakasta izango dauen

gakoa, eragile, elkarte, enpresa eta administrazioa helburu komun batean bultzatuko dabezena, alde bakoitzak bere ahalegina eta baita dirua be helburu horretan jarritz. Gauza bera gertatzen da erakundeen arteko lankidetzan. Baliabideak, ahaleginak, pertsonala eta ekintza bateratzen dira. Bikoiz-

*"Lankidetzako
publiko-pribatua eta
erakundeen arteko
lankidetzak ona
jarduera arrakastatsu
baten gakoak dira"*



© BFA/DFB

"Zergek eta fiskalitateak garapen jasangarriaren helburuetan daukeen eraginaren diagnostikoa egiten ari den Europako lehen ogasuna gara"

Dena den, kostaldea eta mendia hamengo jendez beteta dagozela be ikusi ahal izan dogu. Bizkaiko jendeak aurretik egin dauen moduan kostalde honetan uda igarotzen dauela. Hau be nabarmendu beharreko elementua da.

Herritarrek konfinamenduan izan daberen jokabidea ikusita, eta orain, COVID-19aren gorakadak ikusita, zein da BFAk pandemiaren aurrean herritarrei emoten deuten mezua?

Aurreko erantzunean adierazitakoa errepikatzen dot: txerto edo tratamendu baten aurrean, birusa gure artean dago. Adi egon behar dogu, ez utzi maskara erabiltzeari eta distantziei dagokienez, pilaketak saihestu behar doguz. Herritarrak, oro har, errespetutsuak dira, arretatsuak, baina kontu handiz zaindu behar da kontu hori.

Maila globalean, pandemiak mundua hartu dau 2030erako Garapen Iraunkorreko Helburuei begira, eta helburu horiek azpimarratzen dabe "inor atzean ez uzteko" erroka. Nola barneratu dauz helburu horiek BFAk?

Zergek eta fiskalitateak garapen jasangarriaren helburuetan daukeen eraginaren diagnostikoa egiten ari den Europa osoko lehen ogasuna gara.

Administrazio eta enpresa guztientzat moda bihurtu dala dirudien hori, guk seriozki hartzen dogu.

2019an onartutako gobernu-programako proiektu bakoitza helburu horiek betetzeko bideratuta dago.

Nire obsesioa hurrengo belaunaldientzat Bizkaia eta Busturialdea hobeagoa uztea da. Ezin da helburu hori bete iraunkortasunetik, elkartasunetik, kohesiotik eta aukeera-bardintasunetik egiten ez badogu, eta, batez be, ez badogu gizarte gisa aurrera egiten eta hobetzen inor atzean itxi barik.

tasunak saihesten dira, eta eraginkortasuna eta efizientzia dira proiektuaren arrakastaren gakoak.

Foru Aldundiaren *Orekan* programak ekimen bateratu hau bultzatu gura dau, bai pribatua, bai administrazioen artean. Lehenik eta behin, indarguneak eta ahulguneak zehaztea, garatu daitekezen ekimenetan ahaleginak zehazteko.

Ostalaritza eta turismo sektorea da kaltetuenetako bat. Zenbat denbora uste dozu beharko dauela Bizkaia pandemiaren aurreko puntua berreskuratzeko?

Inork ez dauko kristalezko bolarik, ez gaitezen fidatu beharrezko informazio edo ezagutza prediktiborik ez daukenek berba egiten dabenez.

Dena den, badakigu turismoa eta ostalaritza kaltetuta geratu direla Euskaditik kanpoko bisitariak ez datozelako. Nazioarteko bisitek behera egin dabe.

Egoera hori aldatu egingo da, logikoa danez, pertsonak bidaiatzeko beldurra galtzen dabenean, bisitan seguru sentitzen direnean. Hori aldatu egingo da birusak eragin txikia daukonean, dela tratamendu segurua edo txertoa dagoelako, dela birusa bera desagerrarazten dalako. Birtartean, iragarpenak, suposizioak eta abenturak dira.

URDAIBAI ETA AGENDA 2030, gaurkoari eta etorkizunari begira

ARANTZA ACHA


UNESCO Etxea- Centro UNESCO

Pais Vasco-ko zuzendaria

Orain dela 5 urte, gizateriak erabaki eban zein zan geure burua eraikitzeko etorkizuna; Garapen Jasangarrirako Agenda 2030 onartu gendunean, pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat ezarri gendun, bake unibertuala eta justiziarako sarbidea indartzea helburu ebana. Agenda 2030ek garapen jasangarriko 17 helburu proposatzen dauz, herritarren kezka ohikoenak oso ondo jasotzen dabena, BBK-Behatokiak argitaratutako 2020ko udako *Deustobarometroan* ondo islatzen dan bezala.

Euskal Herriko arazo nagusiak

Une honetan, zure ustez, zeintzuk dira Euskal Autonomia Erkidegoaren (aurrerantzean, Euskal Autonomia Erkidegoa) arazo nagusiak? Adierazi gehienez hiru.



Osasuna, hezkuntza, kalitatezko enplegua, etxebizitza duina eta klima-aldaketaren aurkako borroka dira, besteak beste, euskal gizartearen kezka nagusietako batzuk, eta agenda 2030ak proposatzen deusku nola erantzun horiei, ez soilik gaurkoari eta orainari begira, baizik eta etorkizunari begira, ziurtatuz orain abian jartzen doguzan erabakiek eta neurriek ez dabela etorkizuneko belaunaldien ongizatea hipotekatuko.

Koronabirusaren pandemiak eta gizarte, osasun eta ekonomia-krisiak garapenak ikuspegi integrala eta orekatua izan behar dauela ulertzea indartu besterik ez dau egin.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba garapen iraunkorrerako gune emblematikoa da. UNESCOk proposatzen dau Biosfera-Erreserbak



garapen jasangarrirako laborategi izatea, giza ongizatea hobetzeko, ekosistema naturalak babestuz, eta, horrela, ikuspegi barriztaileak sustatzea giza garapenerako, sozialki eta kulturalki egokiak eta ingurumenaren aldetik jasangarriak izango direnak. 1984an Biosferaren Erreserba izendatu ebenetik, Urdaibai garapen jasangarriagaz sentikorra eta konprometitu dan espazio gisa eraikitzen joan da, eskaintzen dabezen aukera ugariak aprobetxatuz, eta zaintzen jakin beharko dogu aurrera egiten jarraitzeko.

Natura eta kultura-ondare pribilegiatua daukon lurralde bat dogu, eta horrek aukera emoten deusku garapen-eredu propio bat definitzeko, balio erantsi paregabe hori aprobetxatzeko. Eta berezitasun hori aukera bihurtzen da COVID-19k sortutako krisiaren aurrean.

Tokiko elikagaien ekoizpen jasangarriak edo turismo jasangarriak eragin positibo handiak izan daikeez garapenaren alderdi askotan: Elikadura, osasuna, genero-bardintasuna, uraren eta energiaren kudeaketa jasangarria, lan duina, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, klimaren aldeko ekintza, lehorreko eta itsasoko ekosistemen babesa. Jarduera sozioekonomiko horiek arduraz bideratuz, eta inpaktu negatiboak minimizatuz, Urdaibaiko Biosfera Erreserba garapen jasangarri eta inklusiboan aitzindari gisa finkatu daikegu, inor atzean uzten ez dauen espazio gisa.



**AISIALDI OSASUNGARRIRAKO
ETA “ESPIRITU JASANGARRIKO”
BISITA NATURALAK
ETA KULTURALAK**

**NUEVA
EUROPA**


**Visit
Urdabai**
© bai Nueva Europa

 94 625 06 06 / 634 243 762
 visiturdaibai@nuevaeuropa.com
 www.visiturdaibai.com

ZELAN ATERAKO GARA HONETATIK?

**ESKUALDEA ERALDATUKO DOGU,
ERRESPETUZ ETA BARRIKUNTZAGAZ**

Koronabirusaren krisiak, gure etorkizuneko itxaropenak alde batera utzi barik, pizgarria izan behar dau ekintzailatza aktibatzeko, nortasuna berreskuratzeko, tradizioa berrasmatzeko eta barrikuntza-bideak egiteko ekoizpen-eredu sendoago, lehiakorrago eta iraunkorrago baterantz, sektore guztietan kalitatearen alde egingo dauena eta lankidetzatza publiko eta pribatua bultzatuko dauena. Testuinguru barri horretan, lehen beharrezkoa bazan be, orain ezinbestekoa da eskualdean industria eragile bat ezartzea, gure balioekaz eta udalaz gaindiko erakundeen garapen-estrategia-gaz bat datorrena.

CCOVID-19k sortutako krisiaren aurrean, geure espiritutik ekintzailea eta solidarioa azaldu behar dogu, bitartekoak bilatu, sinergiak sortu eta proiektuak elkarlanean garatu, eskualde barruan elkarri lagunduz berreraikitzen lagunduko deuskuenak eta estrategia industrial bultzatzaile eta jasangarri bategaz eskualdea gainditzea. Urrats bakoitza planifikatu behar dogu gure balioen ikuspegi global integratzaileagaz eta erakundeen arteko apustu sendo eta ondo funtsatuagaz.



Helburua, Garapen Iraunkorreko Helburuen (GJH) eta Europar Batasunaren laguntzen irizpideen ildotik, estrategiak eta bultzada instituzionala eta ekimen pribatua uztartuko daben ekonomia-eredu bat lortzea da, zeharka, modu iraunkorrean eta bizi garen espazioarekiko errespetuz, nortasun argia daukon eskualdea baita, naturaz, historiaz, ondareaz eta herritar kualifikatuaz aberatsa.

Koronabirusaren krisiak enpresa eta erakunde guztiei eragin deutse, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, haien proiektuak kaltetu dauz. Enpresek, autonomoek, entitateek eta erakundeek, beren eskumenen eta erantzukizunen esparruetatik, neurri errealistekaz erantzun dabe, COVID-19ren pandemiak eragiten deuskun krisi sakonari aurre egiteko. Busturialdea-Urdaibain estrategia integral eta integratzaile bat behar dogu, ilusio barriak sortzeko, eskualdearen etorkizuna eta biztanleen ongizatea bermatzeko, herriz herri.

Gakoa eskualdeko eragileak batzea eta kohesionatzea da, elkarlaneko etorkizuna sortzeko helburu komunagaz. Gako horrek pertsonen eta eragile publiko eta pribatuen (tokikoak eta udalaz gaindikoak) kontzientziazioagaz eta konpromisoagaz funtzionatuko dau. Eragile horiek nahitaez hurbildu, eztabaidatu, adostu eta koordinatu behar dabez ahaleginak enpresa barriek ekiteko eta dagozen enpresen balio erantsia indartzeko. Teknologian, digitalizazioan, barrikuntzan, trantsizio energetikoan eta negozio, mugikortasun eta banaketa-eredu barrietan inbertitzeko bitartekoak bildu behar doguz, baita turismoan pentsatzen dogunean be. Herritarren prestakuntzan inbertitzea da egoera bakoitzean erantzun egokienak garatzeko beste gakoetako bat.

Pertsonok itzaropena eta elkartasuna behar doguz ezberharrei aurre egiteko, elkarregaz aurrera egiteko indarrak batzeko eta erantzukizunez jokatzeko inor atzean ez uzteko. Premisa horiek dira *#danonartean* (*) ekimen solidarioaren oinarria. Ekimen hori koronabirusa dala ta konfinamendu une larrietan sortu zan.

Ekimenaren balioa Busturialdea-Urdaibaiko eragile asko (erakundeak, erakunde autonomoak, elkarateak eta enpresa pribatuak) elkartzea izan zan, lankidetzeta-dinamika bat eraikitzeke helburu baten inguruan, koordinatuta eta zeharka lan egiteko, ekonomiaren dimentsio guztiak eta koronabirusaren pandemiaren aurreko bizitza soziokulturala berreskuratu eta gainditu behar doguzelako.

Eragile bakoitza, bere gaitasunetik abiatuta, enpresen, saltokien, autonomoen, baita turismo eta kulturaren jarduera ekonomikoa sostengatzen eta bultzatzen lagunduko daben neurriak ezartzen eta planifikatzen hasi da. Horiek gorabidean dagozen sektoreak dira, ekonomia sortzen dabe eta identitatearen eta barrikuntzaren bidez lurraldea kohesionatzen dabe. Horietako batzuek labur-labur azaltzen dabez orain arte emon dabezen urratsak.

Informazioa, elkar hobeto ezagutzea dira lankidetzaren oinarritzko premisak. Sinergiaz betetako dinamika itzaropentsu baten hasiera izan daiteke nor garen, zer egiten dogun eta zer hornitzeko gai garen jakitea. Helburuak adostuta, norabidea mantentzea da helburua, paladaz palada, ikuspegi komuna jarrita. Hori lortzeko, danok norabide berean arraun egin behar dogu.

() #danonartean ekimen irekia da, konfinamendu betean sortua, espiritu ekintzailega sustatzeko, interes partikularren gaintetik, batzen gaituena balioesteko, Busturialdea-Urdaibai bizitzeko, lan egiteko eta bisitatzeke eskualderik onena izateko nahia. (danonartean@nuevaeuropa.com)*

UDALEN ERANTZUKIZUNETIK

Herritarrekiko eta toki-erakundeekiko harreman zuzenaren ondorioz, udalak ezinbestekoak dira eskualdearen norabidea bideratzeko. Herri bakoitzak, bere idiosinkrasia eta guzti, balioa batzen dau. Udal-kudeaketa pertsonen sentimenduan inplikatzean datza, haien eguneroko beharrei adi egotean, eta eskura daukeezan neurriak praktikan jartzean udalerriaren garapenaren eta bizilagunen bizi-kalitatearen alde.

1

Zer mezu helarazi nahi deusezue COVID-19ren eragina lehen pertsonan jasan daben herritarrei? Eta bizilagun guztiei?

2

Zer estrategia garatu dau zure udalak herriko produkzio-sarean eragindako ondorioak gutxitzeko eta udalerriko bizitza eta garapen ekonomiko eta kulturala berreskuratzeko?

3

Busturialdea osotasun gisa, garapen ekonomiko, kultural eta etorkizuneko unitate gisa hartzen daben eskualdeko jarduera-ildoak dauzkan estrategia bat antolatu al da?

Arratzuko UDALA
Josu Olano, alkatea

1

Arratzuko pandemiaren eragina, osasunaren ikuspegitik, arina izan zan, eta auzotarren jarrerari dagokionez, eredu-garria, eta hori udal gobernutik bereziki eskertzen dogu.

2

Lehenik eta behin, Osakidetza emondako neurriak aplikatu, eta udal-kudeaketa eta -zerbitzuak telelanaren bidez egiten jarraitu behar da, aguazilaren zerbitzua izan ezik, osasun-neurri guztiekaz lanean egon baita. Udalerriko jarduera ekonomikoei dagokienez, laguntza-lerro bat aurreikusi dogu, pandemiaren ondorioak arintzen laguntzeko, ahal dogun neurrian.

Tokiko ekonomiari zeharkako laguntza emoteko, *Arrolagune* berrireki dogu, edukiera mugatuagaz. Erakusketa horrek Arrolako kastroko bizitza birsortzen dau duela 2.300 urtekoa; izan be, bisitarien kopuruak ostalaritza dinamizatzen dau, eta, neurri handi batean, sasoiko herriko produktuez hornitzen da, eta, ondorioz, Arratzuko kultura, gastronomia eta lehen sektorea eskutik doaz. Osasun-arloan, babes-pantaila bat eta 20 maskara kirurgikoko pack bat eman deusaguz biztanle bakoitzari, baita gel hidro-alkoholikoa emon be familia-unitate bakoitzeko. Neurri hori errepikatuko dogu

Etorkizunari dagokionez, eskualdearen ikuspegitik begiratuta, uste dogu herri bakoitza hobetzen badogu, eskualdea hobetzen dogula. Horregatik, legealdiko proiektu guztiak aurrera ateratzeko lanean ari gara, horietako batzuk egoerara egokituz, baina helburuak ahaztu barik. Bizikletaz eta oinez irisgarritasuna, eskualdeko mugikortasun-estrategiagaz bat etorritzat garatzen ari garena, horietako bat da.

Bermeoko UDALA

Aritz Abaroa, alkatea

1

Lehenik eta behin gure elkartasuna eta babesa agertu gura deutsegu COVID-19aren eragina zuzenean jasan daberen herritar guztiei. Udaletik gaixotasun honen ondorioak ahalik eta murrizten izateko etengabe lan egin dogu eta bide horretatik lanean jarraitzeko konpromiso osoa daukogu.

Pandemia honek elkartasuna eta auzolana balioan jarri dabe eta horiek dira, hain zuzen be, bermerotarrok herri eta gizarte modura argitara atera doguzan balioak. Mila esker, beraz, bizilagun guztiei egin daberen eta egiten dabiltzan esfortsuagatik.



Nik BermeON-ek ardatz nagusi bi dauko: bermeotarrak eta berraktabazio ekonomikoa

2

Bermeoko Udalak *Nik BermeON* izeneko kanpaina martxan jarri dau horretara milioi bat eurotik gora bideratuz. Kanpaina honek ardatz nagusi bi dauko: bermeotarrak eta berraktabazio ekonomikoa.

Lehen lan-lerroan pandemiaren eraginak herritarrengan ahalik eta txikienak izateko ekimenak gauzatu daukezenentzako; pertsonak muinean ezarri, beharrian handienak dituztenentzako zerbitzu eta laguntzak, garbiketa eta



Herri bakoitza hobetzen badogu, eskualdea hobetuko dogu

desfinkezio programa bereziak, gizarte politiken indartzea, gure nagusien zaintza bereziak...

Bigarren lan-lerroari dagokionez, epe labur, ertain eta luzerako berraktabazio estrategiak landu dira. Herriko ostalari, merkataria eta txiki-erdi enpresei laguntzeko ekintza desbardinak dagoeneko martxan jarri dira (bonoak, laguntzak, aholkularitza, *Bermeo Tuna Pintxo Tour* egitasmoa...), baina udara eta udazkenara begira be beste hainbat ekimen aurreikusita dagoz.

Kulturari dagokionez be, udako eskaintza egoera berezira egokitu da. Bermeoko Udalak. Aforoak, joan-etorriak eta jende-pilaketak ekiditzeko aukera eskaintzen daberen ekintzak barrizailleak antolatu doguz; udako zinea, musika astea edota kale-antzerkiak besteak beste.

3

Eskualde mailan udal eta eragile desbardinaren artean *#danonartean* ekimena landu da. Leku paregabean bizitzeko sortea daukogu; paregabea bere edertasun eta balio naturalengatik, paregabea bizi-kalitate mailagatik eta paregabea inora joan barik, berton behar dogun guztia eskuartzeko modua daukagulako. Orain geure momentua da!



Busturiko UDALA

Aitor Aretxaga, alkatea

1

Lehenik eta behin, pertsona maite bat galdu dabenen senideei doluminak emotea eta gaixotasuna gainditu dabene bizilagunei animoak emotea.

Bigarrenik, eskerrak emon busturitarrei konfinamenduan eta ondorengo deseskaladan izan dabene portaera eredugarriagatik, herrian ez baitugu jarrera okerrik ikusi.

Eskerrak emon busturitarrei izan dabene portaera eredugarriagatik

2

Udalak laguntza-zuzeneko linea bat ezarri dau (500 euro establezimendu bakoitzeko) udalerriko negozio txikien-tzat, jardueren etetea eta hilabete hauetan izandako diru-sarreraren galera arintzeko (gurea bezalako udal txiki baten ahalmen ekonomikoen barruan). Bestalde, erraztasun handiagoak emoten ari dira establezimendu horiek lehenbailehen normaltasuna berreskuratzeko, eta malguak izan gara terrazak instalatzeari, ordutegiei eta abarri dagokienez.

3

Geure asmoa da gaur egun dagozen eta eskualde osoan batera jarduteko modu hori islatzen dabene erakunde eta entitateak indartzea. Erakunde horiek indartzea, hala nola Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Behargintza, Urremendi, Industrialdea, Biosfera Erreserbaren Patronatua, etab.

II Negurako estrategia ekonomiko barri bat prestatzen gabiz

1

Alkartasun eta hurbiltasun mezua. Gure Udaleko jardun guztia gure herritarren osasuna lehenengo prioridade legezt hartu dogu eta hamendik aurrera be horrela jarraituko dogu. Lehenengo osasune eta gero beste guztia.

2

Gure ekonomiak kalte handia izan dau, halan da be Elantxoben jende asko dago uda garaian eta aurten inoizkorik gehien dagoela be uste dogu. Arazoa handiagoa uste dogu negun izango dogula. Horretarako prestatzen gabiz estrategia ekonomiko barri bat, kultura eta gastronomian oinarritutakoa batez be. Helburu horregaz gabiz lanean, berez negua gogorra izaten da gure herrian eta aurten ez dogu nahi gogorragoa izatea. Beti, hori bai, osasun baldintzak lehenetiz.

3

Gure herritik behintzat horren alde gura dogu egin.

1

Ez dagozela bakarrik. Udala herritarrengandik gertu dago. Geure lana ez da inoiz gelditu, gure esku dagoen medio guztiak forutarren zerbitzura jartzen doguz beti eta are gehiago egoera latz hauetan. Batez be bakarrik bizi diren nagusiei geure babesa emon deusegue, banan banan telefonoz deituz euren beharrianak eza-gutzeko eta geure laguntasuna eskeintzeko. Forutarroi udalaren esker ona helarazi gura deuset, euren jarrera eredugarria izaten ari dalako. Eta orain arteko moduan jarraitzeko indarra emon gura deuset, denok batera eta elkarturik mantentzen bagara, aurrera egingo dogulako.

2

Lehenengo osasuna zaintzea. Foruko udalan hiru lehenetasun izan doguz. Alde batetik, nagusien egoitza, zuzeneko komunikazioa mantenduz eta desinfektatze lanak burutuz, honi esker ez dogu positiborik izan. Bestetik, langileen segurtasuna, herritarrek babesteko ezinbestekoa, eta horretarako, segurtasun eta prebentzio materialak banatu deuseguz herritarrekaz kontaktuan dagoen langileei eta baita gaixo larri eta ahulenei be. Eta desinfekzioa, udal brigadak astero herri guztia desinfektatzen ibili da.



NUEVA EUROPA

C/ Carlos Gangoiti 15 bajo
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@outlook.com
94 625 06 06

25
NUEVA
EUROPA
www.nuevaeuropa.com



Argi dago larrialdi egoera honek ekonomikoki kalte egingo deuskula eta errealitate barri honi aurre egiteko beharizan larriei erantzutea da geure lehentasuna be. Zorionez udalaren egoera ekonomikoa oso ona da eta honek egoera gainditzeko oso lagungarria izango da.

3

Forun indarrak batu eta elkarlanaren alde egin dogu beti. Eta orain are gehiago. Argi daukogu norabide bardinean egin behar dogula arraun, bizitza soziokulturala eta ekonomikoa berreskuratzeke. #danonartean ekimena horri zuzenduta dago eta geuk be bat egin dogu. Konpromiso kolektibo honen helburua, proiektu eta ilusio barriak



Indarrak batu eta elkarlanaren alde egin dogu beti

sortzea da, berton bizi garenon ongizatea eta etorkizuna bermatzeko. Eskualdeko instituzio, erakunde, elkarte eta eragile guztion artean, danonartean aurrera egin behar dogulako.

Gantegiz Arteagako UDALA

Juan Felix Naberan, alkatea

1

Bizi izan dogun konfinamendu-egoerak geure bizimodua mugatzea eskatu deusku, baita eremu pribatuan be, eta auzotarren jokabide arduratsu eta solidarioa nabarmendu behar da. Bestalde, nahiz eta koronabirusak ez dauen eragin kuantitatibo aipagarriarik izan gure artean, geure elkartasuna eta doluminak adierazi gura deutseguz eragindako familiei.

2

Jarduera ekonomikoak nahitaez ixtearen ondorioak ahal dan neurrian arintzeko, herriko negozioetarako diru-laguntzen lerro bat ireki dogu. Era berean, Osakidetza eskatutako osasun-neurriak aplikatu doguz udal-espazio guztietan, kultur etxean edo frontoian barne, eta zorroztzak gara tokiko eragileekaz horiek betetzeko, jarduera soziokulturalari eutsi ahal izateke, nahiz egia izan kultura-eta kirol-aisialdi antolatua geldiarazi dala. Gure kasuan, aire libreko aisialdirako alternatiba erabilerrazak doguz, gure natura inguru pribilegiatua eta diseinatu doguzen mendi-ibilien ibilbideak direla eta.



Gure eskualdearen kudeaketa koordinatua da erronka

3

Gure eskualdearen kudeaketa koordinatua, hogei udalerri desberdinez osatua, da erronka. Krisi honek ahuleziak erakutsi deuskuz baina baita elkarregaz aurrera egiteko indarrak be, zeharkako estrategietan ahaleginak batzeko eta epe ertain eta luzera helburu komunak lortzeko. Ikuspegi horregaz bat egiten dogu #danonartean ekimen solidarioaren espirituagaz. Ekimen horrek, epe laburrean, Busturialdeko udalerriek parte hartu ahal izango daben lankidetzatza publiko pribatuko ekimenak planteatuko dauz.

Ibarrangeluko UDALA

Jesus Mari Ziluaga, alkatea

1

Geure elkartasuna eta berotasuna herritarrei, euren ondoan gagozela eta egongo garela edozein gauzetarako. Biztanlegoari, bereziki, lehendabizi instituzio publikoek euki behar dogu erantzunkizuna, herritarren osasunaren alde legislatuz eta kaltetuen alde lan eginez. Gero, orduan bai, herritarrei erantzunkizun kolektiboaz jokatzeko eskatu, kontuan hartu behar doguzelako txarto pasa daben jendie, bai osasun aldetik, hil direnetik hasita eta ekonomikoki be sufritzen eta egoera latzean dabizenak.

3

Instituzio nagusien gidaritzapean, Busturialdeko Udalerririk batu beharko ginateke pandemia honek ekarri dabezen ondorioetan laguntzeko. Bai arlo sozialean, osasungintzan eta arlo ekonomikoan. Udaletxe txikiak izanik, instituzioen laguntza nagusiak murriztu egingo dira, zergen bidezko diru sarrerak gutxitu egin direlako, beraz inoiz baino gehiago udalerrri txikien batuketa beharrezkoa ikusten dogu Ibarrangelutik.

2

Neurri ezberdinak hartu dira. Herri mailan, hasiera batean nagusiei eta kolektibo ahuleei laguntzeko auzolana egin zen. Erosketak, telefonoko eguneko deiak Kultur Etxetik laguntzeko bakarkako pertsonen, transportean, maskarillak banatzen eta abar. Arlo ekonomikoan, autonomiei eta ostalaritza eta bestelako empresa txikiei 900€ko laguntza zuzena garatu zan. 21 merkatariei eta autonomiei guztiz. Orain bono kanpaina bat hasi dogu, herritarrei (bonoaren erdia ordainduz) eta ostalaritzari, dendei, taxiari, farmaziari eta ileapaindegia laguntzeko. 10 eta 20 euroko bonoak (5 eta 10 euroko kostoagaz). Kanpaina oso ondo doa.



Inoiz baino gehiago udalerrri txikien batuketa behar dogu

Kortezubiko UDALA

Karmele Enbeita, alkatesa

1

Kortezubin COVID-19aren 3 kasu konfirmatu ziran konfinamenduko lehenengo asteetan. Hiruren artean bi pertsona nagusiak ziren, familia berekoak, eta hil egin ziren. Gure doluminak eta animoak helarazi gura deusaguz barriro be

familiari; egoera gogor honetan ez dago asko esaterik. Kortezubitar guztiontzat konfinamenduan zehar zabal dutako mezua azpimarratu gura dogu: animo, eta eutsi gogor, danon artean aurrera aterako gara.



Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa

IBILBIDE
TURISTIKOAK

Kulturalak eta ekologiakoak top

KARTARA, UMEEKIN
URTE GUZTIAN ZEHA

Erreserbak: www.visiturdaibai.com

Arrien Optika



Urkieta k. 10

Tel./Fax: 946 25 63 63

Email: arrienoptika@yahoo.es

2

Ondorio horiek gutxitzeko *Baietz Kortezubin gasteu!* bono kanpaina ipini dogu martxan, herriko merkatari eta ostalariei laguntzeko eta bide batez baita tokiko kontsumoa bultzateko be. Ekainaren 15an hasi zan herritarrek oso ondo hartu dabe (ia agortuta dagoz bonoak). Hortaz gain, Udalak esfortzua egin dau bere zerbitzuak barriro martxan segurtasunez ipintzeko: liburutegia, udaletxeko jendaurreko arreta zerbitzua bera, etabar.

11

Animo, eta eutsi gogor, danon artean aurrera aterako gara

3

Konfinamenduan zehar kontaktuan egon gara eskualdeko beste udal batzuek bain, guk dakigula, ez da halako estrategiarik antolatu. Gure ustez, oso baliogarria izango zan.

Mendatako UDALA
Joseba Mallea, alkatea

11

Udalerri mailan betidanik izan gara dinamikoak

1

Mendatako Udalak, beste udalen antzera, ahal izan den neurrian herritarrei eskura egon diren zerbitzu guztiak beraie helarazi jakez, gehien behar izan dabenekaz zuzeneko harremana izan dogu eta birusa ekiditeko maskarak eta hidrogela erosi genduzan etxerik etxe banatzeko. Aurrerantzean be, pentsauta dekogu beste partida bat erostea, luzerako joango baitalako egoera hau.

2

Udalerri mailan betidanik izan gara dinamikoak, baino egoera honen aurrean ekintza guztiak bertan bera uzi behar izan doguz. Hala ta guztiz be, herrian doguzen elkarte desbardinei Albizko eta Zarrabentako txokoei, Baserria Landuz eta Olarganeri dirulaguntzak mantentzea erabaki da, berain ekintzak burutu daiezan eta auzoetako bizimodua nolabait mantenduz.

3

Eskualde mailan udaletxeko guztiok, haundi zein txiki, antolatu beharra dogu honelako egoera baten aurrean denon artean zentzuz eta tajuzko erabakiak hartu ahal izateko eta erantzun bakarra transmititzeko Busturialdeko herritarrei.





Morgako UDALA

Mari Tere Artetxe, alkatesa

I

Morgatarron artean COVID-19ak, ofizialki, hiru lagunei eragin deutse, baina ziur nago beste batzuk be jasan izan dabela. Gure artean pertsona nagusi asko daukaguz eta euren artean ardura handia somatu dogu.

Bai eureri eta baita osasun arloko behargineeri be, beste herri batzutan egin danez, alarma-egoerak agindutako konfinamendua hasi zanetik, Morgako bizilagunek be alkartasuna agertu deutsee 20:00etan txaloka, etarte eta balkoietatik.

Udal moduan, geure nagusi bakotxarentzako beharrezko osasun segurtasun-kit bat prestatu dogu eta etxerik-etxe banatu dogu. Ekintza honegaz, euren ardurak eta beldur-rrak entzun doguz eta lasaitzen ahalegindu gara.

Tele-lanari be ekin deutsegu eta esfortzu handia egin dogu herritar guztiengana heldu eta bakotxak ebazan ahuleziei erantzun bat emoteko.

Eurentzako guztientzako mezua lasaitasunarena izan da, behar dabenerako hor gagozala, laguntzeko prest, eta zeozer behar izanez gero, hurbildu edo eroan jake.

Momentu gatx honetan aurrera egiteko itxaropena behar dogu, alkartasuna adieraziz eta indarrak batuz, alkarre-gaz aurrera egiteko.

Esfortzu handia egin dogu herritar guztiengana heltzeko eta beharizanei erantzuteko

2

COVID-19ak eragindako krisia eta horren ondorioz sortutako konfinamendu egoerak, morgatarron harremana mugatu egin dau eta udaletxean, urte honetarako genduan planean be eragina izan dau, aurreikusitako proiektuen datak atzeratuz.

Herriko produkzio-sarean eragindako ondorioak batez be ostalaritzan izan dira eta kulturaren garapenaren berreskurapena datorren udazkenerako edo urterako atzeratu dogu.

3

Busturialdea-Urdaibaiko Udalok eta berrogei erakunde publiko eta pribatu baino gehiagogaz batera, itxaropen eta konpromezu kolektiboko mezua bidali deusagu herritarrei, *#danonartean* jarduerari barrirako ekiteko eta pultsua berreskuratzeko, koronabirusaren krisia igarotzen danean.

Eskualdeko eragileak batzea eta kohesionatzea helburu komuna izanda, etorkizun kolaboratibo bat sortzeko erronka izango eban.

Mundakako UDALA

Mikel Bilbao, alkatea

1

Lehenik eta behin, gure erabateko babes, elkartasuna eta doluminak zoritxarrez maite daben pertsona baten galera jasan daben familia guztiei. Eskerrak emon krisi honetan jokabide arduratsua izan daben herritar guztiei. Bizi izandako egoerak erabat aldatu dau herri honetako bizimodua.

2

Birusaren ondorioak ahal dan neurrian arintzeko, zorrotz jarraitu doguz Osakidetza eskatutako osasun-neurriak, eta udal-eremu guztiak desinfektatu doguz, kanpokoak zein barrukoak, jarduera soziokulturekaz jarraitu ahal izateko. Aipatzekoa da, gure bizilagunen osasuna zainduz, biztanleentzako aparkalekuak handitu doguzela, udalerrian masifikazioak saihesteko.

Era berean, diru-laguntza lerro bat zabaldu dogu ostalaritza osoari laguntzeko, bai eta udalerriko hotel-negoziotarako aparkatzeko txartelak be.

**Biztanleentzako
aparkalekuak
handitu doguz,
udalerrian masifikazioak
saihesteko**

3

Udalerri guztien artean koordinatutako antolaketa da gakoa. Busturialdeko udalok itxaropen eta konpromiso-mezu bat bidali dogu, krisi hau pasatzen danean barriz be jarduerari ekiteko *#danonartean*.

ferrovial
servicios

**BETI HIRITARREN ZERBITZURA
INGURUGIROA ZAINTZEN**

Bekoibarra, n°31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 625 47 27



EUSKAL SOUVENIRS

Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs



1

Lehenik eta behin, eskerrik asko bihotz bihotzez muruetar denei egiten ari zareten esfortzuarengatik. Horrela jarraitu behar dogu. Egoera larri baten aurrean gagoz, baina lasaitasunez eta arduraz jokatu behar dogu, agintarien jarraibideak betez. Muruetako Udala zuen esanetara dago. Ezer behar izanezkero, jarri gugaz kontaktuan. Laguntzeko gagoz.

Muruetak, zuen denon laguntza behar dau egoera honi aurre egiteko. Eta seguru nago izango dauena, Muruetaren indarra, elkartasuna, lankidetzeta eta solidaritatea direlako. Denongan pentsatu behar dogu, bakoitzaren erabakiek, denongan eragina dakeelako. Mesedez, lehen esan bezala, lasaitasunez eta arduraz jokatu daigun, agintarien jarraibideak betez.

Bakoitzaren erabakiek, denongan dauke eragina



Denon artean, lortuko dogu. Aurrera eta eskerrik asko.

2

Guretzat osasuna da lehena, eta, horregatik, herritar bakoitzeko maskara bat, etxebizitzako hidrogela eta behar bezala erabiltzeko jarraibideak jarri doguz muruetarren eskura.

Gure bizilagunei arreta emotea funtsezkoa da. Horregatik, Koronabirusak udaletxea itxi izana baliatu dogu udal-bulegoak udaletxe barrira lekualdatzeko. Ekainaren 8tik aurrera, Muruetako udaletxe barrian emoten da udal-arreta, Kanpantxua auzoan, Elizaren ondoan. Aurrez aurreko arretarako telefono bidezko hitzorduan edo hitzordu telematikoa oinarritutako herritarrei arreta emoteko dispositibo bat aurrekusi dogu, eta ezinbesteko gestioetarako be garatu ahal izango da. Gure helburua da zerbitzuak hamen zentralizatzea eta udaletxea herriaren erdigunera hurbiltzea, herritarrekiko harremana errazteko. Udal barria topagune izatea gura dogu, muruetar guztien etxea delako. *Murueta Zabaltzen* online



plataforma be jarri dogu martxan, udal-bizitzan parte hartzea errazteko.

Ekainean hilerria eta udal frontoia ireki genduzan, COVID-19ren aurreko segurtasun neurriak errespetatuz. Kulturari dagokionez, gure herrian hain errotuta dagoen San Joan bezperako ospakizuna bertan behera utzi arren, Udalak keinu bat egin gura izan eutson ospakizun horri, gure bizilagunei babesa adierazteko, udaletxeko argiak pizteko ekitaldi sinboliko batez.

Sukarrietako UDALA

Erruki Goirienea, alkatesa

1 Sukarrietan, pandemia honen aurpegirik gogorrena jasan ez izanaren zoriona izan dogu, eta ez dau heriotzarik eragin, baina bai, nonahi bezala, hartutako neurrien kezka, larritasuna eta ondorioak. Argi dago gure lehen hitza Euskadi osoan senitartekoak eta maitatuak galdu dabezenentzat dala, baina Sukarrietako herritarrei eta gure udalerrian udak edo egun asko igarotzen dabezen guztiei erantzukizunez jokatzeko jarraitzeko beharra adierazi gura deutsagu, hori guztia (heriotzak, gaixotasunak, konfinamendua, bakardadea...) barriro gerta ez dadin.

2 Lehenik eta behin, kale-garbiketa indartu zan, batez be zirkulazio handieneko eremuetan, kamioi garbitzaile batez, eta brigadarako pertsona bat kontratatu zan, garbiketa-zerbitzu hori indartzeko.

Gainera, gure hondartzen erabilerarako kontingentzia-plan bat onartu gendun, kutsatzeko arriskua saihestu edo minimizatzeko eta geure hondartzen eta *La Marisma*

3

Une zail hauetan garrantzitsua da bat egitea aurrera egiteko. Gurea bezalako udal txikientzat beharrezkoa da eskualdeko erakunde eta eragileekaz elkarlanean aritzea. Osasun eta ekonomia-krisi honi aurre egiteko, elkarregaz lan egin behar dogu, eta loturak sortu, gure bertuteak eta akatsak kontuan hartuko daben sarea, denon bizi-kalitatea hobetzen lagunduko dauen eskualdeko auzolana.

Gure hondartzen erabilerarako kontingentzia-plan bat onartu dogu

parkearen erabilera bideratzeko neurri desbardinekaz, eta plan hori aplika dadin laguntzeko, Udalak berak bi hondartzain kontratatu dauz.

3

Eskualdeko estrategiarik egon ez bada be, informazio-trukea egon da beste udalerri batzuekaz, hala nola Murueta, Forua, Gautegiz Arteaga edo Bermeogaz; izan be, une askotan, udalerri txikiek elkarri lagundu behar izan deutse, egunero argitaratzen ziran arau guztien aurrean, eta jasotzen genduzen neurri eta albiste ugarien aurrean.



ARLO PUBLIKOTIK HARTUTAKO KONPROMISO SEKTORIALAK

Ikuspegi teknikoari eta inbertsio-gaitasunari esker, enpresa publikoek lotura dauke zeharkako ekintzailetzako sare integratzaile bat ehuntzeko beharrezkoa dan lankidetzaren publiko-pribatua bultzatzeko eta dinamizatzeko. Sare horrek, tokiko balioetatik abiatuta, garapen potentzialeko bide barriak irekiko dauz Busturialdea-Urdaibain

1

Zelan egin aurre etorkizunari epe laburrean?

2

Maila partikularrean eta eskualde-mailan, zein dira alderdi kezkarrienak?

3

Kudeaketaren zeharkakotasuna, berraktibatzeko modu gisa (sinergiak). Eskualdeko aldeko baldintzak eta faktore negatiboak etorkizun onerako.

Amantzaileen MUSEOA, *Euskal Herria* MUSEOA,
eta *Santimamiñeko* KOBA

1

Orokorrean, uste dogu egoera honek orain arte mantendutako ekimenak eta egiteko erak berrikustera eroan behar gaitula, "ohituraz" edo "tradizioz" egindakoaren eta benetan egoera barrian egin beharrekoaren arteko hausnarketa bultzatuz.

Gure arloan eskeintza berrantolatuta batez be. Bai egitaraua berpentsatuz zein ekin-tzak aurrera eramateko era barriak antolatuz. Eta konfinamenduan landutako tresnak eta eskarmentutik ateratakoa erabiliz.

EUSKAL HERRIA MUSEOAN gure ekimenak iragartzen dauan boletin barria jarri dogu martxan. Horretarako konfinamenduan aztertutako aplikazio barria eta eraginkorragoa erabiltzen dogu. Bardin be, aurtengorako zan *Hemingway* aldi baterako erakusketa datorren urtera pasatzea pentsatu dogu, horrela hain garrantzi handikoa izango dan erakusketa datorren urtean indarrak batzeko balioko duelakoan. Gainera

Aurton, inoiz baino gehiago, aukera dogu bertokoaz gozatzeko



erakusketak jorratzen dauen gaia ikusita bai eskualdetik kanpo zein atzeretik jendea erakartzeko be balio dezakela uste dogu.

ARRANTZALEEN MUSEOAN, Gernikan egin dogun moduan, gure ekimenak iragartzen dauen boletin barria jarri dogu martxan. Horretarako konfinamenduan aztertutako aplikazio barria eta eraginkorragoa erabiliz. Uda ostean "Akurio" aldi baterako erakusketa zabalduko dogu ekimen nagusi modura. Erakusketa honen gaia Elkanoren bidaiaren ingurukoa da, beraz oso gai ezaguna eta erakargarria baina ikuspegi barria emonez. Horregaitik Bermeora jende asko hurbiltzea espero dogu.

Gernikan erakusketa atzeratzea pentsatu badogu be, Bermeoko museoaren kasuan aurten zabaltzea erabaki dogu, horrela eskualdeko eskaintza kulturala indartzeko asmotan. Bitartean museoak eskaintzen dauen gainerako eskaintza didaktiko guztia, mantentzeko asmoa dau museoak, egoitzara jendea erakartzeko aukera indartzeko.

SANTIMAMIÑEren kasuan eskaintza mantentzea dogu helburu, eskualdean toki "ikonikoa" dan ezkeroko eskaintza mantentzea garrantzitsua dalakoan. Beraz hurrengo hilabetetan hileroko eskaintza didaktikoa berreskuratzen saiatuko gara.

2

Eskualdean potentziala haundia dago horrexegatik agian museoen eta ondare guneen arteko indarrak gehiago batu beharko litzatekez.

Eta bai eskualdean zein gure Bizkaiko gizartean oro har museoak bisitatzeko eta bizitzeko ohitura sendotu gurako geunke. Gure museoak oso eskaintza polita, berezia daukee, eta pena da sarritan bertatik bertara izate hutsak eraginda edo, ez deusegula behar besteko arretarik jartzen. Ohitura hartu eta sartuko bagina konturatuko ginatke ze erakargarriak diren. Asmatu beharra daukogu komunikazioan, umetatik zaletasuna pizten, familientzako zein lagunen arteko plan erakargarritzat bultzatzen.

3

Oso eremu txikia gara eta baliabide (naturalak zein bestelakoak) duen ingurua gara eta hori oso abantaila haundia da. Badaukogu zer eskaini bai inguru aldetik zein batez be pertsonen aldetik. Museoak eta ondare guneak abiapuntutzat hartu eta hortik herriak, ingurune naturalak ezagutzera joan gaitেকে. Aurten, inoiz baino gehiago, aukera dogu bertokoaz gozatzeko.

Baina Eskualdeko ekintzaile edo agente guztien arteko eskaintzak ezagutu eta gizarteratzea ezinbestekoa izango da. Oso garrantzitsua da bai enpresa pribatuetatik zein erakunde publikoetatik jarritako edozein ekintza danok ezagutzea eta ahal dan neurrian danon partehartzeagaz kontatzea.



ELIKADURA SEGURTASUNA ETA INGURUMEN OSASUNA

Laboratorio

Experiencia y especialización como Laboratorio Microbiológico de Análisis de Aguas y Alimentos, así como de aire interior.

Consultoría

Asesoramiento, Diseño, Aplicación y Control de Soluciones tecnológicas avanzadas.

Formación

Ofrecemos capacitación en materia Alimentaria y Ambiental para aumentar el nivel de conocimientos de las personas en sus puestos de trabajo.



PREVENCIÓN COVID 19

Biotalde COVID-19aren aurkako prebentzio planak eskaintzen ditu

Poligono Industrial San Isidro II
Idorsolo, 15 - Dpto 3.2 - 48160 Derio

1

Balio gehiago sortzeko balioen alde egiteko unea da. Pertsonok mundua aldatzeko aukera dogu, hori egiteko dogun boterean sinesteko aukera. Beste herrialde batzuetako produktu merkeak erosten doguzenean, haien gizarte-eredua beinportatzen ari gara: ez dogu geure buruari galdetu behar zergatik diren produktu batzuk ustez garestiak, baizik eta zergatik diren beste batzuk hain merkeak. Gurea defendatu behar dogu, geure balioak, geure egiteko modua.

2

Beste diru-sarrera iturri batzuk (turismoa edo zerbitzuak, adibidez) gutxitzen ari direnez, barrura begiratu behar dogu barriro, hurbileko markak defendatu behar doguz, enpatikoak eta herritarren segurtasunagaz eta osasunagaz konprometituak, enplegua eta aberastasuna sortzen dabenak eta geure balio sozialak partekatzen dabezenak. Oinarrizkoan buruaskiago eta babesleago bihurtu behar dogu. Balio erantsi handia ekarriko daben eta kapitala eta talentua erakarri eta atxikitzea ahalbidetuko daben funtsezko sektoreen aldeko apustua egin behar da.

3

Keinu txikien bidez, eraldatu, komunitatea sortu eta pertsonokaz eta inguruko beste enpresa batzuekatz konektatu daikegu. Marka bakoitzaren atzean, balio-proposamen bat ez ezik, eta, batez be, balio-kate bat dagoelako.



©Azti

Balio erantsi handia eta kapitala eta talentua erakartzeko funtsezko sektoreen alde egin

Gurutze Gorria

GERNIKA-LUMO

1

Etorkizuna ezin da aurreikusi, egunez egun lantzen ari gara. Horretarako, Gernikako Gurutze Gorrian profesional eta boluntario kualifikatuen talde handi bat dogu, datozen ezbeharrei aurre egiteko. Gizatasunetik, hurbiltasunetik eta inpartzialtasunetik jarduten dogu beti, eta premia handiena daukeen pertsona eta familia guztiei berehalako erantzuna emoten saiatuko gara, pertsona ahulenengandik hurbil egoteko.

2

Gure lana ez da arlo edo kolektibo berezi batera mugatzen, baina gaur egun gure jarduerara asko gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoen familiei zuzenduta dagoz, besteak beste, pobrezia mugan bizi diren familiei. Gaur egun, programen onuradunen kopurua izugarri handitzen ari da (elikagaiak eta/edo hornidura elektrikoak ordaintzeko laguntza eskatzen daben familiak, haurtxoen gaiak



© BFA/DFB

erosteko laguntza, etab.). Era berean, ez gara etxe horietako adingabeez ahazten, eta, horretarako, elkargune txikiak jarri doguz martxan behar handiena daukeen haurrei zuzenduta.

Beste arreta-foku bat instituzionalizatu barik eta bakardadean bizi diran adinekoak eta dibertsitate funtzionala daukeen pertsonak dira. Pertsona horiei etengabe emoten jake arreta: jarraipen-deiak, aisialdiko laguntzak eta/edo erakundee-tara zuzentzeko laguntza, etab.

3

Ikus daitekezen arazoan aldeko arreta emoteko, oso garrantzitsua da herri-erakundeez (udalak, gizarte-zerbitzuak, elkarteak...) lankidetzan aritzea eta komunikatzea, bai eta kalean egotea be, premiak hautemanetz eta erne egotea horiei erantzun bat emon ahal izateko.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Zerbitzua

EKOETXEA

1

Epe laburrean, zalantzazko etorkizunaren aurrean, eta turismo jasangarriaren estrategiaren idazketagaz duela urte eta erdi hasitako bideagaz bat etorritz, funtsezkoa da administrazio publikoek sustatzen dabezen jarduerak eskualdeko turismo-enpresen sarearen beharrez koordinatzea.

2

Apirilaren amaieran turismo-enpresen mahai teknikoak egindako bileran sortu zan enpresek osasun-neurri barrietara egokitzeko izandako beharrezana. Bilera horretan, Tourdaibai, Aktiba, Nekatur eta Atrae elkarteetako ordezkariak parte hartu eben, Urremendiko eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Zerbitzuko kideek batera. Horrela, gida didaktiko bat egin da enpresak COVID-19ko neurrietara egokitzeko, eta Urdaibai-Busturialdeko turismo-enpresa guztien eskura jarri da. Gaur egun, 62 enpresak deskargatu dabe gida.

3

Urdaibai helmuga jasangarri eta kalitatezkoa izan dadin eskualdeko erakunde publikoen artean dagoen lankidetzak aukera on bat da. Horren erakusgarri da "Hamen bertan/a un paso" kanpaina, turismo nazionala erakartzeko eta tokiko turismoa erreferentziazko helmuga jasangarri horretara bultzatzeko abian jarri dana. Erakundeen arteko lankidetzak lan honek kalitatezko planen eta esperientzien

Lankidetzak eta komunikazioa, bai eta kalean egotea be, premiazkoak dira



Gida didaktiko bat egin da enpresak COVID-19ko neurrietara egokitzeko



eskaintza aberatsa eskaintzen dau, ahaleginak batzeko eta bisitariaren eskura ahalik eta eskaintza interesgarriena jartzeko helburuagaz.

ETS

EUSKAL TRENBIDE SAREA

1

Euskal Trenbide Sareak, euskal trenbide-kudeatzaileak, bi ildo landu dauz eta lantzen jarraitzen dau: batetik, langileen prebentzioa sustatzea bere lanpostuetan, trenbideko garraioa funtsezko zerbitzu publikoa dalako, eta, bestetik, herritarrek mugikortasunerako daukeen eskubidea bermatzea, oinarritzko hiru irizpideri jarraituaz, distantziari eustea, maskara nahitaez erabiltzea eta pilaketak saihestea. Gure helburua da Busturialdean eta gainerako sarean kalitatezko zerbitzu segurua eskaintzen jarraitzea, pandemia gorabehera.

2


Pandemiaren hedapena eta osasunaren eta ekonomiaren ikuspegitik daukezan ondorio latzak kosta ahala kosta saihestea da helburua. Pertsona bakoitzak, erakunde bakoitzak, enpresa bakoitzak, bere erantzukizun-eremutik ekarpena egin behar dogu tunel honetatik lehenbailehen irteteko.

3

ETSk, Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoak, etorkizunari modu positiboan begiratu gura deuto. Busturialdeak bere alde jokatzan daben hainbat faktore daukoz, ahalik eta ondoen aurrera egiteko: garapen iraunkorra eta biztanleria-dentsitatea. Eskualde honek beti egin dau trenbidearen aldeko apustua, garraio iraunkor eta lehiakorraren alde. Garraio publikoaren erabilera sustatzeko dogun arduratik azpiegiturak hobetzeko lanean dihardugu. Azken bi urteotan 2,5 milioi euro inbertitu doguz Gernika-Lumoko geltokia birgaitzeko eta Lurgorri eta Institutuko geralekuetan, bai eta Muxikan, Busturian eta Sukarrietan be. Gaur egun, Muruetako trenbidea bikoizteko proiektuan ari gara lanean.

**Kalitatezko
zerbitzu segurua,
pandemia
gorabehera**





Barrikuntza, trebakuntza eta bikaintasuna dira jarraitu beharreko bideak



Lanbide-Ekimenak

GERNIKA-LUMO

1

Erakunde publikoek, enpresek eta pertsonak bezala, egiaztatu ahal izan dogu COVID-19 aurreko ingurune aldakorra are gehiago aldatzen dala gaur egun, eta, beraz, ingurune aldakor horretara egokitzeko gaitasuna funtsezkoa dala uste dogu.

Guk, Lanbide Ekimenak-en, maila operatiboan, telelanaren bidez antolatzeko modua hartu dogu. Ikuspegi estrategiko horretatik, irmoki uste dogu gainerako erakundeekaz lerrokatuta lan egin behar dogula, lankidetzaz sustatuz eta ku-deaketa-tresna barriak egokituz. Epe laburrean, plan bat egin dogu, COVID-19ak eragiten duen pertsonen gaitasun digitalak orientatzeko, birkokatzeko eta hobetzeko zerbitzua emateko, iraganean automatizazioa, nazioartekotzea eta barrikuntza funtsezko tresnak izan ziran bezala; gure ustez, gaitasun digitalak palanka garrantzitsua izango dira enpresentzat eta horietan lan egiten daberen pertsonentzat. Urdaibaiko eskualdean epe ertain eta luzerako plan estrategiko bat martxan jartzeko be lan egingo dogu.

2

Lanbide Ekimenak-en arabera, langabezia eta enpresen lan-karga falta oso kezagarriak dira. COVID-19aren krisiak bi alderdi dauzka: bata, osasun-arloa, heriotza asko eta sufrimendu handia eragin dauzelako herritarrengan; eta bestea, krisialdi horren ondorio ekonomikoa, sufrimendua eta kezka be. Normalean, langabeziak pertsona ahulenei, normalean 55 urtetik gorakoak eta prestakuntza gutxi daukeenei eragiten deutse. Enpresen lan-karga funtsezkoa da enpresek ondo funtziona daiezan, eta krisialdi honegaz, arazo asko izan dabez, oso epe laburrean, lan-karga horiek bat-batean jaitsi baitira. Barrikuntza, langileak gaitasun barrietan trebatzea eta bikaintasuna bilatzea dira egoera horretatik modurik eraginkorrean ateratzeko jarraitu beharreko bidea.

3

Aspalditik ari gara eskualdeko gainerako eragileekaz lanean: Behargintza-Bermeo Tokiko Garapenerako Agentzia, Lanbide, Bizkaiko Foru Aldundia, Urdaibaiko Biosfera Patronatua, Urremendi Landa Garapen Elkartea, Barrutialde Prestakuntza Zentroa, eta hori aldeko baldintza da. Erakunde guztiak norabide berean joan behar dogu: Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak, udalek eta gainerako eragileek; hori da egungo krisitik ataratzeko eta etorkizunean izango diran erronketarako prest egoteko modu bakarra.

Positiboa litzateke beste eskualde batzuekiko eta logistika-zentroekiko komunikazioak hobetzea, inguruko enpresei erantzun hobea emateko, kalitatezko enpleguak sor daiezan. Gure ustez, eskualdearen etorkizunerako, bertan bizitzeko eta lan egiteko, funtsezkoa da teknologia barrietara egokitutako kalitatezko prestakuntza-zentro jasagarri baten aldeko apustua egitea.

1

Ziurgabetasunagaz pandemiaren berragerraldien bilakaeraren arabera. Egoera aztertuz, bai eta horrek kultur sektorean aurreikusitako jardueren hedapenean zelan eragiten dauen be. Epe laburrera, helburua da kultura-jardueri eta programei eustea, kultura-ekitaldietarako diru-sarrerak eta edukiera mugatuta.

Estrategiak bat etorri behar dau beste estamentu publiko batzuek (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Europako Batzordea), ez bakarrik kulturaren arlokoak, baita soziosanitarioak be. Datozen hilabeteetan, estrategiak digitalizazioan eta kontingentzia-planekaz espazio publikoak kultura-ekitaldi presentzialetarako erabiltzean eragin behar dau.

2

Kezka orokorra da, eta ez dau alde handirik Euskadiko eskualdeetan. Uste dot ekonomiaren susperraldiaren eztabaidak eta osasunagaz duen orekak markatuko dabela datozen urteetako estrategia ekonomiko-politiko. Europa mailan hartzen diren erabakiek guri eragiten deuskue, eta adi egon behar dogu eta foro eta estrategia komunak sustatu behar doguz eskualdeetako kezkak beste maila batzuetara (Europa, Gobernua) eramateko, laguntza eta politika ekonomiko-sozialak ez daitezen ihes egin.

3

Udalerrietako sailen arteko sinergiak garrantzitsuak dira politikak eta eskalako ekonomiak lantzeko eta zeharkako proiektuak garatzeko. Eskualde mailan ekin-tzak hedatu behar doguz, udalerrri bakoitzaren espezializazioaren arabera.

Eskualde-mailan mesedegarria izan daiteke *Green Pact* Europarra, ekintza eta proiektu iraunkorrak sustatuko dabezela baitirudi. Biosferaren erreserba izatea elementu mugatzailea izan da eskualdearen garapen ekonomikorako. Espero dot iraunkortasunerako eta digitalizatorako Europako estrategia barriak eskualdean ekintzak eta proiektuak hedatzea sustatuko dauela. Biosferaren erreserba izateko aurreko muga horrek elementu bereizgarri bihurtu beharko luke proiektu jasangarri eta digitalak sustatzeko.



Helburua da kultura-jardueri eta programei eustea

BARRIKUNTZA

ETORKIZUNA

AURRERAPENA



ARRATZU ELKARTEGIA

Langunea

Zure negozioarako

espazio baten bila?

Nola parte hartu?

Bere proiektu enpresariala

elkartegian ezartzeko interesatuak

hemen kontaktatu

azpiegiturak@bizkaia.eus | 946 073 700

A

rratzu

BATASUNAK EGITEN DAU ETORKIZUNA

Elkartzea aukera ona da arlo kolektiboan hazteko eta partikularrean aurrera egiteko. Une gogorrak be hobeto elkartuta gainditzen dira. Elkarrekin sinergia emonkorrak sortzen dabez; erronka koordinazio ona da, eta ez inor atzean uztea.

1

COVID-19k sortutako krisiak merkataritzari, ostalaritzari eta turismoari eragin deutse bereziki, eta horrek sektore horiek barriz asmatzera behartzen dauz. Egin al dozue egoeraren azterketarik?

2

Krisi-egoera horretatik ateratzeko, zer eskaintzen deutse elkarrekin bere kideei eta herritarrei, eta zer espero dozue haiengandik?

3

Eskualdeko jarduera-ildo batzuk daukozen estrategia bat antolatu al da, Busturialdea etorkizuneko zeharkako garapen-unitate gisa hartzen dauena, eskualdeko eskaintza egituratua, sendoa, osoa eta dinamikoa agertzen dauen estrategia, alegia?

Urremendi

LANDA GARAPEN ELKARTEA

1

Urremendi Landa Garapen Elkartea, eskualdean turismoa kudeatzen dauan entitatea izanda, lehenengo momentutik egon gara turismo arloko eskualdeko enpresa pribatuek harremanetan. Uste dogu sektore hau, egoera honen ondorioz kaltetuen suertatu dana izan dala, enpresak itxi behar izan dituzte eta alarma egoerarako izan ebezan aktibitate edo alojamentuetako erreserba guztiak bertan behera geratu ziran. Alarma egoera hau amaituta, gaur egun badagoz alojamentu batzuk beraien aktibitatea martxan ipiniko ez dabenak, erreserben aurreikuspenak ez direlako oso onak eta gainera, enpresa hauek martxan jarri ahal izateko, osasun neurriak bermatzeko hainbat protokolo eta neurri ezartzera behartuta egon direnez, oso esfortzu handia egin beharrean egon dira, bat baino

gehiagori ez deutso merezi izan eta aurtengo urtean ez zabaltzea erabaki dabe.



Hemendik aurrera sortzen diran proiektuak elkarlanean egin behar doguz

2

Urremendi Landa Garapen Elkartea, eskualde mailan aritzen dan elkartearen izanik, bere urteko plangintza osoa aldatu behar izan dau egoera honek eraginda, lehenengotan ekintza orokorrak aurreikusten genduzan, baina COVID-19aren ondorioz turismo arloko enpresei zuzenean laguntzeko ekintza konkrituak egitea erabaki gendun, adibidez, turismo arloko enpresei bete beharrek osasun neurriak ezartzeko protokoloak, taller eta web desbardin bidez egiten lagundu dautsegu. Ekintza hau oso arrakastatsua izan da eta enpresa askok eskertu deuskue iniziatiba honen barri izan dabenean. Ekintza

honegaz enpresa askori barri zabaltzeko bidea erraztu deusagu eta aktibitatea martxan jartzea lortu dogu.

3

Uste dogu egoera honen ondorioz harremanak izateko modu desberdinak sortu direla eskualdearen barruko esparru desberdinetan, batak bestearen beharra daukala ikusi dau. Hemendik aurrera sortzen diren proiektuak elkarlanean egin behar doguzela ikusi dogu, danontzako onuragarria izango da eta orokorrean emaitza hobeto lortuko doguz.

Arrantzaleen Kofradia

BÉRMEO

1

Gure jardura ez dago sektore horietako batean be sartuta, nahiz eta oso mende gagozen. Enkantean egindako salmenten zati bat freskoa da (banaketa handia, arrandegiak, ostalaritza, etab.), edo eraldaketa-sektorekoa (batez be antxo latan edo hegazuaren egiteko), eta azken horiek be COVID-19aren eragin handia izan dabek sektoreen menpe dagoz, eta horrek salmentak galtzea dakar.

2

Gure maniobra-gaitasuna oso mugatua da, eta aipaturako sektoreak berreskuratzeko menpe gagoz, oso zigortuak izan baitira eta izaten ari baitira. Beraz, edozein irtenbide toki edo eskualde-ekintzak baino harago doa, kontuan hartuta geure itsasontziek harrapatzen dabena- ren kontsumoak udalerrria, probintzia edo autonomia-erkidegoa gainditzen dauela.



Ondo legoke gure eremuan, Km0 produktuen kontsumo handia sustatzea

3

Ondo legoke, adibidez, gure eremuan, km 0 produktuen kontsumo handia sustatzea (dagoeneko egiten ari dira), bai arrandegietan, bai ikastetxeetan, catering-ean eta abarretan, baina ez litzateke nahikoa izango, HORECAren menpe gagozelako erabat (hotel, jatetxe eta kafetegietarako elikagaiak banatzeko kanala), bai zuzenean, bai zeharka (eraldaketaren sektoreko salmentengatik); beraz, ez dogu irtenbidea ikusten tokiko edo eskualdeko ekintza batean.

Ezagutu Gauegiz Arteaga
pausoz pauso





GME

GERNIKAKO MERKATARI ELKARTUAK

1

GMEk krisiak tokiko saltokietan eta ostalaritzan izan dauen eragina bizi izan dogu, mantentzen dogun foro digital iraunkorraren bidez, kideei denbora errealean informatuta egoteko aukera emoten deusena. Hasiera-hasieratik eta kezkarik sakonenetik, erreakzionatzeko eta elkarregaz aurrera egiteko ahotsak sortu ziran. Jarrera hori *#danonatean* ekimenarekiko atxikimenduan islatu zan.

2

Kudeaketa proaktiboa egin dogu, elkartekideei dinamismoa emoten deusena

2

GMEren kudeaketaren helburua da elkartekideei aholkularitza eta informazio erabilgarria eta praktikoa emotea, gai hauei buruz: diru-laguntzak, dekretu barriak, lege-xe-

dapenak, negozioen eta establezimenduen kalitatea hobetzeko zerbitzuak, prestakuntza-ikastaroak, sektorea digitalizatzeko tresnak eta *online* salmenta. Kudeaketa proaktiboa egiten dogu, elkartekideei dinamismoa emoten deusena eta sektorea oro har gainditzen dauena.

3

Une zail hauetan, joera norberak bizirautea dala pentsa daiteke, baina guk jarrera kolektiboari eutsi deusagu. Elkartekideez gain, udalerrira zabaldu gara. Elkarlanean aritzeko gogoia dogu, eta udalarekiko elkar hurbiltzea lortu dogu, udalak emondako merkataritza eta ostalaritza-bonuak kudeatu doguz eta, guztiz arrakastatsuak. Eskualde mailan, uste dogu Gernika-Lumok eta Bermeok, eskualde-buru osagarri gisa, lankidetzaz-harreman oso positiboa ezar leikeela, bi udalerrietako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak dinamizatu eta sustatzeko eta eskualdean indar zentrifugo eta transbertsal oso aberasgarria sortzeko.

1

Elkartetik egunero Bertoneko kideekaz erlazioan gagoz eta krisi honetako gora-behera guztiak talde modura bizi izan doguz. Horrek, lehen eskuko informazioa eskaintzen deusku egoera aztertu ahal izateko. Konfinamendu garaian adibidez, beharrianak ikusiz, Berton elkarteak *BERTON google maps* eta *call centre*-a martxan jarri eban komertzio ta zerbitzuak herritarrei hurbiltzeko

2

Hil honeetako informazioa guztiz aldakorra eta korapilotsua izan da. Elkartetik, *Bizkaidendako* aholkularien laguntzagaz, kideeri informazio hori garbi eta errez emotea izan dogu helburu. Osasun aholkuak, prebentzio arauak eta diru-laguntzen informazioa Bertoneko kideen esku egoteko egunero esfortsu handia egin da elkartetik. Honetaz aparte, normaltasun barri honetan hasi garenetik kontsumoa bultzatzeko erakunde ezberdinekaz bono eta diru-opariak kaleratu doguz eta urte osoan mantenduko dira.

11

Gure helburua Bermeoko komertzioa indartuz herria bera indartzea da

3

Gu printzipioz lokalki hasi gara lanean. Gure helburua Bermeoko komertzioa indartuz herria bera indartzea da. Baina eskualde modura be estrategia eta proiektu ezberdinak egon badagoz eta horretan be lan egiteko prest gagoz beti. Baina ez bakarrik komertzio eta ostalaritza, Urdaibaiko biztanle guztiak alkarregaz lan egin behar dogu, gurea zainduz, honetatik indartsuago irtetzeko.

1

Egoera egunetik egunera aldatzen ari da, iristen jakun turismo apurragaz ari gara lanean. Baina azken egun hauetan, positibo barriekaz eta komunikabide sentsazionalistekaz, atzera egiten ari gara, jendea beldur da eta telebistak ez dau laguntzen, guztiz kontrakoa, beldurtu egiten dau.

2

Herritarrei helarazi gura deutsegu ostalaritza baliabide guztiak jartzen ari dala bezeroak lasai egon daitezen eta gure establezimenduetan seguru senti daitezen.

Elkarteak ostalariekaz berba egin dau, guztiok higie ne eta ordutegi arauak bete ditzagun.

3

Turismo Bulegoagaz eta Udalagaz lanean ari gara Urdai bain turismoa sustatzeko.

*Amaia Bidaia*k proposamen bat egin dau turistei ostatu hartzeko eta Urdaibai bisitatzeko pakete batzuk eskaintzeko, gure gastronomia eta gure ingurunea ezagutu ahal izateko.

11

Ostalaritza baliabide guztiak jartzen ari da bezeroak lasai eta seguru egon daitezen



Tourdaibai

TURISMO IRAUNKORREKO ELKARTEA

1

Tourdaibai Turismo Iraunkorreko Elkartearen bulego teknikotik etengabe ari gara harremanetan geure elkar-tekideekaz. Gaur egun, txosten bat prestatzen ari gara, turismo-enpresaburu bakoitza bizitzen ari dan egoeraren benetako argazki eguneratua erakusteko.

3

Gure elkarte parte aktiboa izan da toki, eskualde eta foru-administrazioek eta administrazio orokorrek Turismo Iraunkorraren Europako Gutunari atxikitzearen alde egin-dako apustuan, bai eta turismo jasangarriaren estrategia eta datozen bost urteetarako ekintza-plana prestatzean be (2020-2024).

Estrategiek eta bere ekintza-planek administrazioen eta sektore pribatuaren artean batera aurrera egitea erraz-tuko daben neurriak proposatzen dabez, lankidetzeta eta ezagutza emonez, Urdaibain balioa modu seguru eta iraunkorrean sortu eta sortzeko helburuagaz.

11

Lankidetzeta eta ezagutza, Urdaibain balioa modu seguru eta iraunkorrean sortzeko

2

Gaur egun, Tourdaibai Elkarateak bere bazkideei egiten deutseen zeregin nagusiak honako hauek dira: une zail hauetan laguntza eta laguntza emotea, interesatzen jaken informazioa modu praktiko eta errazenean jakina-raztea eta zalantzak daukezen gaietan aholkatzea.

Funeraria Tanatoria
IZARO

GERNIKA
C/Don Tello, 18
Tel.: 94 625 83 23

BERMEO
Bizkaiko Jaurreria, 21
Tel.: 94 618 63 78

izaro@funerariaizaro.es

LK
LOGÍSTICA

GARRAIOA,
BILTEGIRATZE,
BANAKETA...

Txaporta Industrialdea, 2-1
48300 Gernika - Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es



KATEMAILA AHULENETIK KATEAN IRAUTEA

Gaur egun enpresa izatea ez da lan erraza. Indar morala eta inplikazioa behar dira etsipenak ez garaitzeko. Profesionaltasuna ezinbesteko baldintza da, baina ez da beti nahikoa izaten egoera txarra denean. Enpresek eta ekintzaitzak norabidea eta baliabideak daukezan testuingurua behar dabe. Pertsona ausartak eta ondo prestatuak badaukoguz.

1

Zelan eragin deutso zure enpresari pandemiaren ondorioek?

2

Busturialdean egoteagatik, eragin berezia izan al dau COVID-19ak zure enpresan eragindako krisiak?

3

Zer neurri ezarriko dauz enpresak egoera hori gainditzeko? Zelan uste dozu eraiki daitekeela Busturialdeko enpresa-sarearentzat etorkizun itxaropentsu bat *#danonartean*?

Amoyabe

KONTSERBAK

1

Osasun-larrialdiari aurre egin eta enpresan lan egiten dogun guztion osasuna bermatzeko neurri bereziak hartu behar izan doguz. Horrek lan egiteko forma barriak eta kontzientzia aldaketa bat ekarri dau gure egunerokora.

Maila ekonomikoan, ostalaritzaren itxierak kolpe handia suposatu dau arrain-kontserben sektorearentzat, bezero garrantzitsuak baitira. Gainera ez da argi ikusten etorkizun laburrean sektore horren garapena zein izango dan.

2

Ez bereziki. Mundu mailako pandemia baten aurrean gagoz, eta ondorioz eskualde honetan izandako eragina beste batzuetan izandakoaren antzekoa da.



Bertako
produktuak
kontsumitzeko
kontzientzia
zabaltzea gakoa
izan daiteke

Bertako produktuak kontsumitzeko kontzientzia zabaltzea gakoa izan daiteke. Koronabirusak erakutsi dau zeinen garrantzitsua dan eskualde edo herrialde bat lehengai eta produktuak produzitzeko gai izatea, kanpotik inportatu behar izan barik. Gure enpresak indartu eta industria barriak zabaltzea da bidea, baina horretarako guztiz beharrezkoa da herritarren kontsumo-ohiturak aldatzea, produktu lokalen aldeko hautua eginez.



Urdaibai Bird Center

HEGAZTIEN INTERPRETazio ZENTROA

1

Martxoaren 15ean konfinamendua dekretatu zenetik ekainaren 15era arte zentroa itxita egon zan bisitarientzat, eta 3 hilabetez ERTE partzial bat hartu zan. Bide telematikoz lan egin zan Urdaibaiko paduretako egun guztietako zuzeneko emalaldiekaz, eta emaitza harrigarria izan da; 200.000 bisita bakarrek ezagutu dabe *Urdaibai Bird Center* beren etxeetatik, eta horrek balio izan dau martxoaren 15ean zentroa barriro ireki ondoren bisita presentzialak igazko antzeko parametroak lortzeko. Bestalde, nabari da bisitari atzerritarren presentzia oso txikia dala, eta Estatuaren bisita-kopuruak gora egin dauela.

Gelditu ezin izan dan beste lan-esparru bat Urdaibaiko hegaztien monitorizazioa izan da, denbora-zikloi lotutako datu-baseak ezin baitziren eten.

2

Ez dakit Urdaibain egoteak beste leku batean baino eragin handiagoa izan daikeen.

3

Bisitariei bisita segurua egiteko eta museografian barrikuntzak egiteko neurriak hartu doguz.

Bestalde, gure jarduera Urdaibaiko Biosferaren Erreserba osoko naturako turismoagaz lotuta dago, eta funtsezkoa izango leike bidegorri bat sortzea ibaiaren ertz honetan.

Gure ustez, Busturialdeak benetako ikonoa izan behar dau ekonomia berdean, eta hortik zuzendu beharko leike enpresa-sarearen zati bat.



**Busturialdeak
benetako ikonoa
izan behar dau
ekonomia
berdean**

|| Gure araua da, aurrera egitea



|| Teknologia barrien barrikuntzarako eta garapenerako neurriak ezarriko doguz

Campus KONTSERBAK

1

"Funtsezko zerbitzuetako" enpresa garen aldetik, gure zerbitzu-bokazioa sendotzea suposatzen dau.

Ziurgabetasun handiz bideratu dogu krisia, eta eragina izan eban konfinamenduaren hasieran; izan be, egun batzuetan itxi egin behar izan gendun, lehenik eta behin, gure pertsonentzako neurri seguruak prestatu arte, eta, bigarrenik, eta ez garrantzi gutxiagokoa, geure kontserben hornidura bermatuz, ahalik eta jarduera handienari eutsiz.

2

Krisia eragin globala izaten ari da, eta horrek eragin deusku gehien, eta denbora luzez jarraituko dau.

Urdaibai eskualdeko eragina turista gutxiago etortzeak ekarriko dauela uste dogu, nahiz eta hurbileko pertsona gehiagoren bisitakaz konpentsatu daitekeen; hala be, oso ondo zaindu beharko doguz eskualdea benetan segurutzat jotzeko neurri guztiak.

3

Krisi globalean gagoz, eta inor ez da horretarako prest egon. Agintaritzak egunero argitaratzen ari diren neurri eta arauen arabera garatzen dira planak, gure araua da aurre egitea, gauzak ondo egiten jarraitzea eta gure ekintzak kanal gutzietan oso ondo neurtzea, gure lehentasuna salmentak bermatzea da.

Ez dago formula miragarriarik, baina eguneroko lana, langile profesional eta konprometituen talde batek lan egitea, dira zaindu beharreko baldintzak aurrera jarraitzeko eta etorkizunean konfiantza sortzeko, lehenik egunerokoa eta gainerakoak iritsiko dira.

Cusumano KONTSERBAK

1

Eragin egin deusku, gure salmenten zati bat ostalaritzara bideratuta dagoelako.

2

Ez, gure kasuan ez dau eragin berezirik izan Busturialdean kokatuta egoteak.

3

Teknologia barrien barrikuntzarako eta garapenerako neurriak ezarriko doguz.



Serrats

KONTSERBAK

1

Zortea izan dugu! Gaur egun ez dogu kutsaturik izan. "Normaltasunez" lan egin dogu, eta ez dogu ERTerik egin. Neurri asko jarri doguz gu babesteko. Gure salmentak jaitsi egin doguz, ostalaritzan (Horeca) egiten dogun ekoizpe-naren zatiagatik.

2

Neurri batean zortea izan dogula uste dot, pandemia nahiko ondo kontrolatu den gunea izan baita. Bestalde, pozgarria da paisaia hori dauen eremu batean bizi tzea eta lan egitea

3

Lan egitea, lan egitea eta lan egitea. Hori da errezeta, dena bakoitzaren konpro-misotik pasatzen da. Lehenengo norbera ez kutsatu eta horrela ez kutsatu bes-teak eta gero lanera joan. Serrats-en gaur egun ez dago COVID-19rik, eta ego-tekotan norbait kanpoan kutsatzen dalako eta gero besteak barruan kutsatzen dauelako izango da bakarrik

Horregatik, erantzukizun pertsonala eskatzen dot! Hau oso serioa da.

Bigarren galderari dagokionez, erantzuna berbera da. Lanagaz. Hori izan da gure ezaugarria, lan serioa eta ondo egindakoa. Horrela, Kantauri itsasoak eskaintzen deuskuzen baliabide naturalak aprobetxatuz eta gure langileen inplikazioari eta lan onari esker, 28 herrialdetan saltzen diren kontserba bikainak egin daikeguz.

"Normaltasunez" lan egin dogu, eta ez dogu ERTerik egin

Ferrovial - Busturialdeko Mankomunitatea

1

Lan-ordutegiak eta zerbitzuak aldatu ziran, aldageletan eta abarretan multzoka-tzean gaixotasuna zabaldu ez zedin eta, horrela, udalerriko garbiketa-lanak egi-teari utz ez leikioezan; izan be, gobernuaren protokoloaren arabera, COVID-19k positibo bat hautematen ebanean, harremanetan egon leuskiozen langile guz-tiak konfinatzen ziren (nork egingo eban zerbitzua kasu horretan?).

Bitarteko gehiago erabili ziran hipoklorito beheratua eukan desinfekzioetarako eta COVID-19aren aurkako tratamendurako produktu kimiko espezifikoetarako, bai baldekada mekanikoen bidez, bai banakako motxila fumigatzaileen bidez es-kuz fumigatuz.

Partida garrantzitsu bat bideratu da COVID-19aren aurka borrokatzeko produk-tu espezifikoak erosteko eta, ondoren, birusa transmititu daikeezan eremuak, barandak, edukiontziak, ospitaleetako anbulatorioetarako sarbideak, zaharren egoitzak, irekita egon ziran saltokiak (okindegiak eta abar) tratatzeko.

Azpiramaratu gura dot pandemiaren unerik kritikoenetan Epis-en gabezia izuga-



rria izan gendula, eta zentro horiek eta abar tratatu behar izan genduzela, non, potentzialki, kutsatzea oso posible zan. Enpresak beharrezko Epis-ak lortu ebezan ahalegin handia egin ondoren, osasun eta segurtasun-ekipoek bezala. Era berean, garbiketa, desinfekzio eta hondakin-bilketako zerbitzua ez da egun bakar batean bez geldi egon.



2

Gure kasuan, COVID-19ak eragindako krisiak eragina dau gure artean, Busturialdean eta zerbitzua emoten dogun gainerako eskualdeetan bezalaxe.

3

Dagoeneko zenbait jarduera-protokolo ezarri dira, batez be, kutsatzea eta haren transmisioa saihesteko prebentzioari begiratuta (Epiak, ordutegien aldaketa, etab). Ekarpinari dagokionez, uste dot hartzen diren bitarteko eta neurriek pandemiaren hedapenaren aurkako borrokan beren aletxoak ekarri dabela.

Garbiketa eta
desinfekzio
zerbitzua ez da
egun bakar
batean bez
gelditu

ZAINDU ETA GOZATU

A
matzu



Ebaki XXI - Ebepellet

1

Ebakin, pandemiak ez deusku gehiegi eragin. Duela bost urtetik negozio-eredu malgu bat garatu dogu, ezusteko egoeretara egokitzeko aukera emoten deusku-na. Esportaziora bideratutako kalitate oneneko egurraren zati bat desbideratzea izan da gure estrategia.eta kalitate txikiagoko aplikazioak eraikuntzarako. Horri esker, orain arte krisia saihestu eta enpleguari eutsi ahal izan deusagu, baina emoitza txarragoekaz, baina positiboak.

Ebepellet, neurri handi batean eraikin publikoetan, eskoletan eta ekipamendu kolektiboetan dauen merkatua, pixka bat kaltetua izan da, baina ez modu dramatikoan, pandemia martxoan sartu zalako, berogailuen erabilera murrizten dan denboralditik gertu.

2

Busturialdean egoteak ez deusku eragiten, ez bezero motagatik, ez hornitzaile motagatik. Gure hornikuntza ez dago Busturialdean, baso-masak eskuratzeko murrizketak oso murriztaileak dira, eta, beraz, eskualdetik kanpo bilatu behar doguz hornitzaileak.

3

Esperientziak gure ekoizpen-eredu malgua egokia dala baieztatu deusku, eta orain gure lan-malgutasuna hobetzea da gure helburua, ordutegiari eta egutegiari dagokienez, ustekabeko egoeretara edo gure kudeaketaren mende ez dagozen egoeretara hobeto egokitzeko, baita egur-hornidura baldintzatzen dauen klimatologiara be,; gure hitzarmena oso zurruna dalako eta ez datorrelako bat gure sektorearen ezaugarriekaz; izan be, besteak beste, egur-hornidura baldintzatzen dauen klimatologiaren mende dago, eta urte sasoi jakin batzuetan ezinezkoa da hori ateratzea. Busturialdeko enpresa-sarearen etorkizuna ekologiararen eta ekoizpen lehiakorren arteko oreka iraunkorra adostea da.

L&K

LOGÍSTICA

1

Pertsonei dagokienez, kamioietan bezeroen edo hornitzaileen instalazioetara joaten direnei dagokienez, jasotako tratua, kasu askotan, egia esan, gu kutsatuta egongo bagina bezala izan da, eta birusaren eramaileak izango bagina bezala, eta zerbitzua emon behar gendun tokietan, eurek bakarrik "salbu mantendu" behar balute bezala.

Irekiera-ordutegien murrizketak, arreta-ordutegien etengabeko aldaketak eta alde zurretik abisatu gabeko itxierak etengabeak izan dira, eta galera handiak eragin deuskue.

Behin kargatu edo deskargatu behar denean, establezimendua duenak lan horretara behartuta dago, eta hala egin beharrean, beraiek geure langileei emon



© Ebaki

**Eredu malgua
garatu dogu
ezusteko
egoeretara
egokitzeko aukera
emonez**

**Jarduera
nabarmen jaitsi
da**



Merkatu-kuota irabazten jarraitzea espero dogu, balio erantsi handiko proiektuak garatuz



deutsee behar hori, kutsatzeko arriskua areagotuz.

Jarduera nabarmen jaitsi da; izan be, industriari zerbitzua emoten deutson enpresa bat gara, eta geldirik edo oso jarduera gutxigaz egon da.

2

Ez dot uste geure enpresaren kokapenak eragin berezirik izan dauenik, lurralde nazional osoan mugitzen baikara.

Ez dogu COVID-19aren kasurik izan, eta hori enpresak nahiz langileek hartutako prebentzio-neurriengatik izan daiteke, bai eta Eusko Jaurlaritzak herritarrek kontzientziatzeko eta egoeraren larritasuna zabaltzeko hartutako neurriengatik be.

3

Ikusitakoa ikusita, eta egoera ez dala laster konponduko ikusita, merkataritza-kanpaina bat egin dogu geure jarduketa-lurraldetik kanpoko bezeroak erakartzeko.

TDG

CLAMPING SOLUTIONS

1

Ziurgabetasun handiko hilabeteak izan dira, eta hala izaten jarraitzen dabe, eta hori ez da ona enpresa batentzat. Baina egoera horri aurre egiteko, oso kualifikatuta dagoen gure taldeak, I+G+Bn egiten dogun inbertsioak eta 100 urtetik gorako esperientziak indar handia emoten deusku.

Zalantza barik, gure gizartearen oraintsuko historiako hilabeterik gogorrenak izan dira. TDG, erantzukizun handieneko ariketa batean, eta azken urteetan eskari-zorrorik handienetako bat izan arren, itxita egon zan pandemiaren okerrenean.

Badakigu garai gogorrak datozela, baina TDGk, Talleres de Guernica-ren garaitik, garai zailetan onena ateratzea izan dau ezaugarri, eta, aldi berean, aurrera egingo dogu, indartuta gainera.

2

1916ko maiatzaren 12tik daramagu Gernikan. 100 urte baino gehiago igaro ondoren, gure instalazioek jatorrizko lekuan jarraitzen dabe, handitze, eraberritze eta modernizazioekaz. Nazioartekotzearen eta bikaintasunaren aldeko apustuan murgilduta gagoz, eta Gernikan dogun kokapena ez da inoiz arazo izan. Azken hilabeteetan gure instalazioak hobetu doguz eta inbertsioak egin doguz, ez bakarrik makinerian, baita prozesuak hobetzeko eta fabrikatzeko be; beraz, sektorearen aurreikuspenak onak ez diren arren, merkatu-kuota irabazten jarraitzea espero dogu, balio erantsi handiko proiektuak garatuz.

3

Gure langileen eskura jarri doguz segurtasuna bermatzeko behar diren neurri guztiak. Telelana eta familia bateragarri egiteko erraztasun guztiak eman doguz. Egoera barri eta ustekabeko horren aurrean, maila emon behar zan, eta TDGn lan egiten daben pertsona guztien segurtasuna lehentasunezko gaia izan da.



Ziur gura
dozuna ezin dozula
Busturialdea-Urdaibako
herrietan
aurkitu?

2020ko APIRILA

kutxabank HIPOTEKA GAZTEA ESKATU ZEUREA



kutxabank

Berrir
martxan.

BIZKAIKO ZIN-BIDEA
 RUTA JURADERA DE BIZKAIA

Gernikako Arbolatik hara itago

Mas allá del Árbol
 de Gernika



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
 INFORMACIÓN Y RESERVAS



688 856 689

ibilbideak@bizkaia.eus

L	M	X	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

BISITA EGUNAK DÍAS DE VISITA

☐ BISITAK OINEZ VISITAS A PIE ☐ BISITAK AUTOBUSEZ VISITAS EN AUTOBÚS

2020

Bisiten eguna / Calendario de visitas

Abuztua / Agosto

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24/31	25	26	27	28	29	30

Iraila / Septiembre

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Urria / Octubre

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Azaroa / Noviembre

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23/30	24	25	26	27	28	29

Abendua / Diciembre

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			



Arrolagune

Arrolako Oppidum-aren
Interpretazio Zentroa

URDAIBAI

orain 2300 urte / hace 2300 años

Gure zerbitzu guztiek betetzen dute Bizkaian indarrean dagoen legedia eta Covid-19 birusa ez kutsatzeko babesari eta segurtasunari buruzko osasun-gomendioak.

Todos nuestros servicios cumplen la legislación vigente en Bizkaia y las recomendaciones sanitarias en materia de protección y seguridad para evitar el contagio del virus Covid-19.

Erreserbak: Astelehenetik Barikura / Reservas: Lunes a Viernes
Ordutegia / Horario 10:00-14:00
Tel.: 634 24 37 62
arrolagune@visiturdaibai.com www.visiturdaibai.com
Arrolagune: Loiola Auzoa 4 - 48383 Arratzu(Bizkaia)



Visit
Urdaibai

Bizkaia
foro autonomico
de euzkadi





**Orain
Bizkaia**



Gozatzeko 300
jarduera baino
gehiago

Reserva

BILBAOBIZKAIA

www.visitbiscay.eus